

2012

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi

- **ARGIBIDE MEMORIA**
 - Ekonomia eta Aurrekontu Politikaren inguruko orientazioak
 - Politika Publikoak
 - 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Plana
 - Lege-Proietkuaren Testu Artikulatuari buruzko iruzkinak
 - Erakunde-egitura eta Aurrekontu-egitura
- **MEMORIA EXPLICATIVA**
 - Orientaciones de Política Económica y Presupuestaria
 - Políticas Públicas
 - Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2015
 - Comentarios al Texto Articulado del Proyecto de Ley
 - Estructura Institucional y Estructura Presupuestaria

Gai Orokorrak
Temática General

1

Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak

Presupuestos Generales de la
Comunidad Autónoma de Euskadi

2012

EUSKO JAURLARITZA

EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Argitaratzailea: **Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**
Edita: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: **Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografía Zerbitzua**
Imprime: Servicio de Imprenta y Reprografía del Gobierno Vasco

Lege gordailua: **BI 900-1983**
Depósito Legal:

Argibide Memoria *Memoria Explicativa*

1 Alea *Tomo 1*

Aurkibidea / Indice :

I.	EKONOMIA ETA AURREKONTU POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK	1
	<i>ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA</i>	
II.	POLITIKA PUBLIKOAK	19
	<i>POLÍTICAS PÚBLICAS</i>	
	- ADMINISTRAZIO OROKORRAREN AURREKONTUEN LABURPENAK	45
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL</i>	
	- ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK	55
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	
	- ENPRESA- ETA FUNDACIO-SEKTORE PUBLIKOEN (ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAK, SOZIETATE ETA FUNDACIO PUBLIKOAK) AURREKONTU BATERATUEN LABURPENAK	61
	<i>RESÚMENES DE LOS PRESUPUESTOS CONSOLIDADOS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL Y FUNDACIONAL (ENTES PÚBLICOS DE DERECHO PRIVADO, SOCIEDADES Y FUNDACIONES PÚBLICAS)</i>	
III.	LEGE EGITASMOAREN TESTU ARTIKULATUARI BURUZKO IRUZKINAK	79
	<i>COMENTARIOS AL TEXTO ARTICULADO DEL PROYECTO DE LEY</i>	
IV.	2015 ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO PLANA.....	95
	<i>PLAN DE CIENCIA, TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN 2015</i>	
V.	EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN EGITURA INSTITUCIONALA	107
	<i>ESTRUCTURA INSTITUCIONAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI</i>	
	- ERAKUNDEEN ZERRENDA	109
	<i>RELACIÓN DE INSTITUCIONES</i>	
	- ERAKUNDE-ANTOLAKETA	119
	<i>ORGANIZACIÓN INSTITUCIONAL</i>	
VI.	ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMO ADMINISTRATIBOEN ETA EAE-KO SEKTORE PUBLIKOKO PARTZUERGOEN AURREKONTU-EGITURAK	131
	<i>ESTRUCTURAS PRESUPUESTARIAS DE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, DE LOS ORGANISMOS AUTÓNOMOS ADMINISTRATIVOS Y DE LOS CONSORCIOS DEL SECTOR PÚBLICO DE LA CAE</i>	
	- EGITURA ORGANIKOEN ZERRENDA.....	133
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ORGÁNICAS</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: GASTUA	153
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-GASTO</i>	
	- EGITURA EKONOMIKOEN ZERRENDA: SARRERA	173
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS ECONÓMICAS-INGRESO</i>	
	- EGITURA FUNTZIONALEN ZERRENDA.....	191
	<i>RELACIÓN DE ESTRUCTURAS FUNCIONALES</i>	



EKONOMIA- ETA AURREKONTU-POLITIKAREN INGURUKO ORIENTAZIOAK

2012rako aurrekontu orokorrak krisi ekonomikoko laugarren urte honetan euskal sozietateak dituen erronka garrantzitsuenei aurre egiteko diseinatu dira. Krisi hau aurrekoak baino askoz luzeagoa izaten ari da iraupenari dagokionez eta, gainera, statu quo izenekoa aldatzen dabilta munduko ekonomia itunean, Europa indarra galtzen ari dela.

Horrenbestez, Ekonomia eta gizarte alorretakoak dira erronka horiek, eta hainbat alderdi dituzte, batzuetan kontraesankorrik. Bada, ez dute epe laburrerako izaera soiliik, aurrekontu-ekitaldian, epe luzeagora ere zabaltzen baitira.

Erronka berehalako eta nabariena euskal ekonomiaren hazkunde-erritmoa sendotu eta bizkortzea da. Euskal ekonomia atzeralditik irten da, baina hazkunde-tasa oso ahulekin, eta tasa horiek ez dute enplegua sortzeko aukerarik ematen. Eta enplegua sortza da, hain zuen ere, 2012an ekonomia- eta aurrekontu-politikaren helburu nagusia, langabeziak gizartean eragiten duen berebiziko arazoa txikiagotzeko.

Baina ekonomia-hazkundeak iraunkorra izan behar du epe luzean eta, horretarako, geure hazkunde-eredua aldatu behar dugu, geure produkzio-sarea berregituratu eta ekonomia-erakundeak eraberritu, gaur egungo krisia eragin diguten desorekak saihestearren eta hazkunde sendoagorako oinarriak ezartzearren. Horrenbestez, Jaurlaritzaren ekonomia-politikaren beste erronketako bat euskal ekonomiaren produktibitatea eta lehia handitzeko beharrezko egitura-erreformei ekitea da, eta hori ere 2012ko aurrekontuetan agertu behar da.

Zalantzak gabe langabezia da gizarte eta ekonomia arloetako erronka handiena gaur egun, Jaurlaritza gehien kezkatzen duen arazoa da eta, ondorioz, enplegua sortza da ekonomia-politikaren helburu nagusia. Baino hori lortzen den bitartean, berehalako helburua da krisi ekonomikoaren ondorio negatiboak gehien pairatzen dabiltsan pertsonak bertan behera ez uztea. Eta horrek esan nahi du gizarte-gastua ere, pertsonen oinarrizko beharrizanei erantzutzen diena (osasun-laguntza, hezkuntza edo gutxieneko errenta), lehentasuna izango dela aurrekontuetan. Jaurlaritzak ongizatearen estatua bermatzen duten oinarrizko zerbitzu publikoen eskaintza mantenduko du, ekitatea eta gizarte-kohesioa oinarrizko printzipioak direlako gobernu honen zereginetan.

ORIENTACIONES DE POLÍTICA ECONÓMICA Y PRESUPUESTARIA

Los presupuestos generales para 2012 se han diseñado para enfrentar los retos más importantes que tiene planteados la sociedad vasca en este cuarto año de crisis económica. Una crisis mucho más larga en cuanto a su duración que las anteriores, y en la que además confluyen factores que están modificando el "statu quo" en el concierto económico mundial, donde Europa está perdiendo peso.

Por tanto, unos retos en el campo económico y social que presentan múltiples facetas, a veces contradictorias, y que tienen un carácter no solo de corto plazo, en el ejercicio presupuestario, sino que se extienden a más largo plazo.

El reto más inmediato y evidente es consolidar y acelerar el ritmo de crecimiento de la economía vasca. La economía vasca ha salido de la recesión pero lo está haciendo con unas tasas de crecimiento muy débiles, que no están permitiendo generar empleo. Y generar empleo para disminuir el enorme problema social que supone el paro en nuestra sociedad, es el principal objetivo de la política económica y presupuestaria en 2012.

Pero el crecimiento económico debe ser sostenible en el largo plazo y, para ello, necesitamos cambiar nuestro patrón de crecimiento, reestructurar nuestro tejido productivo, reformar las instituciones económicas con el objeto de evitar los desequilibrios que nos han llevado a la actual crisis y sentar las bases para un crecimiento más robusto. Por tanto, acometer las reformas estructurales necesarias para aumentar la productividad y competitividad de la economía vasca es otro reto de la política económica del gobierno que debe estar atendido en los presupuestos de 2012.

Sin duda, el desempleo constituye el mayor reto social y económico del momento, es el problema que más le preocupa al Gobierno y, por tanto, la generación de empleo es el primer objetivo de la política económica. Pero mientras esto no se logre, el objetivo inmediato es no dejar abandonadas a su suerte a las personas que más están padeciendo los efectos negativos de la crisis económica. Y esto quiere decir que el gasto social, aquél que atiende a las necesidades básicas de las personas, de asistencia sanitaria, educación o una renta mínima, será también una prioridad en los presupuestos. El Gobierno va a mantener la oferta de servicios públicos fundamentales que garantizan el estado del bienestar, porque la equidad y la cohesión social son principios básicos en la acción de este Gobierno.

Hori guztsia kontuan hartuta, gobernu batek ondo jakin behar du babesgabeenei laguntzeko lehentasun premiazkoenak eta gizarte-babeseko eskemen epe ertain eta luzerako lehentasunak bateratzen. Hau da, gure ongizatearen estatuaren iraunkortasuna lortu nahi da, eta horretarako ezinbestekoa da gizarte-babesteko gaur egungo erakundeak etengabe erreformatu eta modernizatzea, orain eraginkorragoak izan daitezen eta etorkizunean mantendu ahal izan daitezen. Ongizatearen estatuaren iraunkortasunak duen problematika bereziki ikusgarri eta garrantzitsua da krisi ekonomikoko garai honetan, kontu publikoek denboran iraunkorrik ez diren aurrekontu-desorekak dituztenean. Hori dela eta, gobernu arduratsu batek ezin ditu begiak itxi belaunaldien arteko ekitatearen arazo horren aurrean.

Krisi ekonomikoaren gogortasunaren ondorioz eta unerik larrienetan eskariari eutsi nahi izateko ekonomia-politika baten ondorioz hiru urtetan kontu publikoetan defizit handiak izan ostein, beharrezkoa da aurrekontu-desoreka hori zuzentzea, eta zikloko egonkortasunerako bidea egitea, EAEko kontu publikoetan egitura-defizita egotea saihestearren. Halaxe eskatzen du Europarekin ditugun konpromisoek ezarritako aurrekontu-egonkortasunerako politikak ere, baita Espainiako Konstituzioaren duela gutxiko erreformak ere. Izañ ere, erreforma horren ondorioz, Estatuak eta autonomia-erkidegoek ezin izango dute egitura-defizitik izan. Gauzak horrela, aurrekontu hauek BPGd-ren % 1,3ko egonkortasun-helburua onartzen dute, eta horrek nabarmen baldintzatzen du gastuaren zenbateko orokorra, aurreko urtekoa baino txikiagoa dela.

Jaurlaritzak azken bi ekitaldian egin izan duen aurrekontu-egonkortasunerako politikaren oinarria gastuaren doikuntza izan da batez ere. Ahalegin handia egin da ezinbestekotzat jotzen ez ziren partidak murrizteko, baina une honetan ezin da askoz gehiago murriztu ongizatearen estatuaren oinarrizko zerbitzuei buruzko partidak ukitu gabe, edo Jaurlaritzak produkzio-sarea modernizatu eta hazkunde-eredu berrira aldatzeko duen zeregina ukitu gabe.

Hala ere, doikuntza guztiak gastuan egin diren arren, diru-sarrerak eragin du desoreka. 2007. eta 2009. urteen artean zerga itunduen ondoriozko bilketak BPGd-ren 4 puntu egin zuen behera, hau da, 3.000 milioi euro inguru. 2012an oraindik ez gara iritsiko 2006. urtean (6 urte lehenago) eskuratutako bilketa-mailetara. Gaur egungo bilketa-agertokietan islatutakoaren arabera, aurreko hamarkadan batez beste eskuratutakoa baino bi puntu gutxiago izan ditugu zerga itunduen ondoriozko presio fiskalean, eta horiexek izan dira egungo aurrekontu-murrizketak eragin dituztenak.

Ekitaldi honetan, berriro, gastu-murrizketak planteatu ditugu, baina argi izan behar dugu bide horretatik bakarrik ez dugula gure kontuak orekatzea lortuko. Aurrekontu-egonkortasunaren helburua bete nahi badugu, ezinbestekoa da diru-sarrera publikoak handitzea. Batez ere zergen zerga-oinarriak oinarritzen dituzten aldagai makroekonomikoak hazten dabilzanean, tasa txikietan izan arren, eta zergak, aldiz, hazten ez direnean.

Dicho esto, un Gobierno debe saber combinar la prioridad más urgente de atender a los más desprotegidos, con el mantenimiento a medio y largo plazo de los esquemas de protección social. Es decir, se trata de conseguir la sostenibilidad de nuestro estado de bienestar, que exige una continua labor de reforma y modernización de las actuales instituciones de protección social para hacerlas más eficaces en el presente y hacer posible su mantenimiento en el futuro. La problemática de la sostenibilidad del estado del bienestar adquiere especial visibilidad y relevancia en estos momentos de crisis económica, cuando las cuentas públicas incurren en desequilibrios presupuestarios que no son sostenibles en el tiempo, por lo que un gobierno responsable no puede cerrar los ojos ante este problema de equidad intergeneracional.

Tras tres años de fuertes déficits en las cuentas públicas, originados por la virulencia de la crisis económica y por una política económica de sostenimiento de la demanda en los momentos más críticos, es necesario corregir este desequilibrio presupuestario y caminar hacia la estabilidad en el ciclo, que impida un déficit estructural de las cuentas públicas vascas. Así nos lo exige además la política de estabilidad presupuestaria que viene impuesta por nuestros compromisos europeos y por la reciente reforma de la Constitución española, que obligará al Estado y las Comunidades Autónomas a no incurrir en déficit estructural. En este sentido, estos presupuestos asumen un objetivo de estabilidad del 1,3% del PIB, que condiciona de forma importante el montante global del gasto, que se reduce con respecto al año anterior.

La política de estabilidad presupuestaria practicada por este Gobierno en los dos ejercicios anteriores ha descansado fundamentalmente en el ajuste por el lado del gasto. Se ha hecho un gran esfuerzo para reducir las partidas que no se consideran imprescindibles, pero estamos llegando a un punto en el que no se puede reducir mucho más sin tocar partidas que afectan a servicios básicos del estado de bienestar o al papel del Gobierno en el apoyo al tejido productivo para su modernización y cambio al nuevo patrón de crecimiento.

Sin embargo, aunque todos los ajustes se han producido en gasto, el desajuste ha venido por el ingreso. Entre 2007 y 2009 la recaudación por tributos concertados cayó 4 puntos de PIB, es decir, unos 3.000 millones de euros. En 2012 aún no llegaremos a los niveles de recaudación alcanzados en el año 2006, seis años después. Los escenarios actuales de recaudación nos sitúan en una presión fiscal por tributos concertados dos puntos por debajo de la obtenida como media en la década anterior, y son el desencadenante de las actuales restricciones presupuestarias.

En este ejercicio, de nuevo, planteamos recortes del gasto, pero debemos ser conscientes de que únicamente por esta vía no llegaremos a equilibrar nuestras cuentas. Es necesario aumentar los ingresos públicos si queremos cumplir el objetivo de estabilidad presupuestaria. Máxime cuando ya, aunque sea en tasas pequeñas, están creciendo las variables macroeconómicas que sustentan las bases imponibles de los tributos y sin embargo, éstos no lo hacen.

Krisiaren kargak zuzen banatu nahi baldin badira herritarren artean, diru-sarreretan ere jardun beharko da, batez ere zergaren ihesean eta elusioan. Eusko Jaurlaritzak ez du eskumenik zerga itunduen ordainarazpenean, baina bai ekonomia-politikaren arloan, Gainera, Estatutuaren 41.1.a artikulan eta Lurralde Historikoen legearen 14.3 artikulan xedatutakoaren arabera, eta maiatzaren 30eko 3/1989 Legearen bitartez egindako horien garapenean xedatutakoaren arabera, lurralte historikoetako ogasunen artean zerga-arloa harmonizatu, koordinatu eta laguntzea sustatzeko ardura ere badu. Hori dela eta zergei buruzko eztabaidea planteatu behar du Eusko Legebiltzarrean eta Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan egin duen bezala, baldin eta Europako ekonomia-gobernuarekin dituen konpromisoak bete nahi baditu. Izan ere, gure Gobernuak badaki aurrekontua bateratzeko politikak ondorio atzerakorra dakarrela ekonomia-hazkundean, eta ekonomia-hazkunderik gabe ezin direla zorrak ordaindu. Hori dela eta, aurrekontu hauetan gastu publikoa doitzeko politika leundai nahi da, ahal den neurrian, nabarmen gutxiagotzen delako barne-eskaria. Bada, errentarik altuenak dituztenen zergak handitzeko politika ezarri nahi da, horrek ondorio askoz txikiagoa izango baitu eskari agregatuan.

Egin daiteke. Euskal Autonomia Erkidegoko presio fiskalak, aipatu den bezala, BPGd-ren lau puntu egin zuen behera krisi ekonomikoaren lehenengo bi urteetan, eta ez da ekonomiaren erritmo berean berreskuratu. Ulergarria da zerga-arloa pizteko hasierako neurrien eta egonkortzaile automatikoen jokoak hain beherakada zakarra justifikatzea krisiaren unerik zorrotzenetan, ekonomiaren beherakada –%3 baino gehiagokoa zenean. Baino ekonomia-hazkundeko garai honetan, nahiz eta hazkunde txikia izan, presio fiskalaren maila txikiagoa bateratzea da EAEko sektore publikoaren egitura-defizit handiena eragiten ari dena, bai orain eta bai etorkizunean. Erraz ikusten da presio fiskal txiki hori ez dela iraunkorra.

1.- Egoera ekonomikoa eta 2012rako aurreikuspenak

Euskadi, 2011n, 2008ko amaieran hasi zen atzeraldi ekonomikotik ateratzen dabil. Neurri handi batean, krisiaren kontra egiteko politika irmoaren ondorioz izan da hori, eta geure eremuan Eusko Jaurlaritza izan da politika irmo horren buru. Politika ekonomiko horri esker, geure enpresek produktibitate eta lehiakortasun handiagoa dute, eta gastu publikoaren eraginkortasuna hobetu da, zerbitzu berberak ematen direlako kostu txikiagoarekin, baina krisiaren ondorio larrienak jasaten dituztenak laguntzen utzi gabe.

Repartir de manera equitativa entre la población las cargas de la crisis implica actuar también sobre los ingresos, en especial sobre la evasión y la elusión fiscal. El Gobierno Vasco no es competente en la exacción de los tributos concertados pero sí lo es en materia de política económica y, además, tiene encomendada, al amparo de lo dispuesto en el artículo 41.1.a del Estatuto y en el artículo 14.3 de la LTH y en el desarrollo de éstos a través de la Ley 3/1989, de 30 de mayo, una importante misión de promover la armonización, coordinación y colaboración fiscal entre las haciendas de los territorios históricos. Por eso, tiene la obligación de plantear el debate fiscal como lo ha hecho en el Parlamento Vasco y en el Consejo Vasco de Finanzas Pùblicas, si quiere cumplir sus compromisos con el gobierno económico de Europa. Porque nuestro Gobierno es consciente del efecto recesivo sobre el crecimiento económico que causa la política de consolidación presupuestaria y de que sin crecimiento económico no se pueden pagar las deudas. Por ello, pretende en estos presupuestos suavizar, en la medida lo posible, la política de ajuste del gasto público, que disminuye de forma evidente la demanda interna, con una política de incremento de los impuestos que recaen sobre las rentas más altas y que tienen un efecto claramente menor sobre la demanda agregada.

Hay margen para ello. La presión fiscal en Euskadi cayó, como se acaba de mencionar, cuatro puntos de PIB en los dos primeros años de crisis económica y no se está recuperando al mismo ritmo que lo hace la economía. Es comprensible que el juego de los estabilizadores automáticos y de las medidas iniciales de estímulo fiscal justifiquen una caída tan brusca en los momentos más agudos de la crisis, cuando la economía caía por encima del -3%. Pero en estos momentos de crecimiento económico, aunque sea débil, la consolidación de un menor nivel de presión fiscal está causando la mayor parte del déficit estructural del sector público vasco, en el presente y en el futuro. Es fácil de comprender que esta baja presión fiscal no es sostenible.

1.- La situación económica y las previsiones para 2012

En 2011 Euskadi está saliendo de la recesión económica en la que entró a finales de 2008. Y esto, en gran parte, es debido a una política decidida de lucha contra la crisis, que en nuestro ámbito ha liderado el Gobierno Vasco. Una política económica que ha contribuido a que nuestras empresas ganen productividad y competitividad, y que ha mejorado la eficiencia del gasto público, prestando los mismos servicios con menor coste y sin dejar de apoyar a los que más están padeciendo los efectos de la crisis.

Guztioan ahalegin horri esker, 2010ean euskal ekonomiak hazkunde txiki batekin itxi zuen urtea (BPGd-ren %0,3), atzeralditik irten dela berretsiz. Ekonomiaren susperraldiak bide egokia darama, kanpo-eskarian baitago oinarritu, gure lehiakortasuna handitu egin delako nazioarteko merkatuetan. Barne-eskariaren ekarprena negatiboa izan zen 2010. urtean, kontsumitzaileen konfianza hobetzearen ondoriozko barne-kontsumoaren hazkundeak ez baitzuen lortu eraikuntzak eragindako kapital-eratze gordinaren beherakada, nahiz eta igoera bat ikusi den ekipo-ondasunen inbertsioan. 2010ean izandako hazkunde-tasa ez zen nahikoa izan emplegu garbia sortzeko eta, ondorioz, langabezia-tasa %10ekoa izan da azken hiruhilekoan. Krisiaren hasieran euskal empresa askok ahalegin nabarmena egin zuten euren langileak mantentzen eta, ondorioz, enpleguaren beherakada BPGd-ren beherakada baino txikiagoa izan zen 2009an. Hala eta guztiz ere, 2010ean, susperraldia abian dela, enpresek lanpostuak doitzen jarraitu dute produktibitate handiagoa izatearen, batez ere industrian, %4,0 hazi baitzen.

2011tik igaro den aldi honetan, euskal ekonomiak hazkunde ahularekin jarraitu du eta bigarren hiruhilekoan %0,8 hazi zuen Barne Produktu Gordina (BPGd) urte arteko tasan, urtearen hasieran baino hamarren bat gutxiago, baina 2010eko bigarren seihierekoko balio bera. Beraz, hazkunde-profilan egonkorra da, baina apala. Oro har, zaitasunak ikusi dira barne-eskaria indartzeko eta, ondorioz, euskal ekonomiak jasotzen duen bulkadaren zati handi bat kanpoko saldotik dator, kanpo-eskariak ematen baititu BPGd-ren ondorioz eskuraturako hazkundearen zortzi hamarrenetako sei Hala eta guztiz ere, EAEko enpresen ustiapenak hartzen dituzten herrialde nagusiak dezelerazio-fase argian daude, eta horrek eragina izan lezake kanpoko sektorean hedatzeko egungo ereduan.

Barne-eskariari dagokionez, kontsumo pribatuaren ahultasuna (%0,3) nabarmendu behar da. Palanka-efektua kentzeko beharrak (hau da, aurrezko beharrak, familia eta enpresen gehiegizko zorpetzea zuzentzeko), lanmerkatuaren ahultasunak eta kontsumo-kreditua lortzeko zaitasunak eragotzi egiten dute osagai hori berreskuratzea. Bestalde, kontsumo publikoak %1,3an mantendu zuen hazkunde-erritmoa, nahiz eta administrazioak defizita murrizteko neurriak hartu. Azkenik, kapital-eraketa gordinak hobetzen jarraitu zuen, baina oraindik balio positiboak izan gabe. Ekipo-ondasunetan egindako inbertsioak izandako hobekuntza ez da nahikoa eraikuntzako inbertsio eza konpentsatzeko eta, ondorioz, agregatu horrek %1,0 egin zuen behera guztira.

Fruto de este esfuerzo colectivo, en 2010, la economía vasca cerró el año con un tímido crecimiento (0,3% del PIB) que confirma la salida de la recesión. La recuperación de la economía está siguiendo el patrón correcto, pues se está basando en la demanda externa, debido al incremento de nuestra competitividad en los mercados internacionales. La contribución de la demanda interna fue negativa en 2010 ya, que el crecimiento del consumo interior basado en una mejora de la confianza de los consumidores no logró contrarrestar la caída de la formación bruta de capital lastrada por la construcción, aunque se apreciase un repunte de la inversión en bienes de equipo. La tasa del crecimiento lograda en 2010 fue insuficiente para crear empleo neto y, como consecuencia de ello la tasa de paro en el último trimestre alcanzó el 10,0%. En un primer momento de la crisis, muchas empresas vascas hicieron un ostensible esfuerzo por mantener sus plantillas, con lo que el descenso del empleo en 2009 fue menor al de la caída del PIB. Sin embargo, en 2010, con la recuperación ya en marcha, las empresas han seguido ajustando los puestos de trabajo para ganar productividad, sobre todo en la industria, donde aumentó el 4,0%.

En lo que va de 2011, la economía vasca mantiene el tono de crecimiento débil y en el segundo trimestre aumentó su producto interior bruto (PIB) un 0,8% en tasa interanual, una décima menos que en el inicio del año, pero el mismo valor que en el segundo semestre de 2010, con lo que ofrece un perfil de crecimiento estable en valores modestos. En general, se aprecian dificultades para que la demanda interna se fortalezca, por lo que gran parte del impulso que recibe la economía vasca proviene del saldo exterior, ya que la demanda externa aporta seis de las ocho décimas de crecimiento obtenidas por el PIB. Sin embargo, los principales países destinatarios de las exportaciones de las empresas vascas se encuentran inmersos en una fase de clara desaceleración, un hecho que puede terminar afectando al actual modelo de expansión por el sector exterior.

Dentro de la demanda interna, destaca la atonía del consumo privado (0,3%). El necesario proceso de desapalancamiento, es decir, la necesidad de ahorrar para corregir el excesivo endeudamiento de familias y empresas, la debilidad del mercado de trabajo y las dificultades para conseguir un crédito al consumo impiden una recuperación de este componente. Por su parte, el consumo público mantuvo su ritmo de crecimiento en el 1,3%, a pesar de las medidas adoptadas por la administración para reducir el déficit. Por último, la formación bruta de capital continuó su proceso de mejora, pero sin recuperar todavía los valores positivos. La mejora en la inversión en bienes de equipo no es suficiente para compensar la falta de inversión en construcción, por lo que el conjunto de este agregado disminuyó el 1,0%.

Industria-sektorea da euskal ekonomiaren susperraldiaren buru, %3,3ko hazkundea izan baitu bigarren hiruhilekoan. Hala ere, lau hamarrenetan leundi du aurretiaz zuen balioa, Europako gainerako ekonomietan gertatu den bezala. Aipagarria da zerbitzuen sektoreak izan duen emaitza (%1,0), hamarren bitan hobetu baitu aurreko datua eta, nahiz eta datu oso handia ez izan, aurreko zortzi hiruhilekoetako baino handiagoa da. Daturik negatiboa eraikuntzan egon da berriro (-%5,6), eta oraindik ez du berreskuratzeko zantzurik, egoitza-sektoreak dinamismorik ez duelako eta inbertsio publikoak behera egin duelako.

Hazkunde-tasa ahul horiekin ezin da emplegurik sortu, eta lau hamarreneko urte arteko beherakada izan zen bigarren hiruhilekoan, eraikuntza oso narratuta dagoelako eta zerbitzuetan empleguak sortzeko bulkada txikiagoa izan delako. Produkzioaren eta empleguaren bilakaera horren ondorioz, produktititatearen aurrerapena ehuneko bat baino pixka bat gehiagokoa izan da, aurreko balioekin bat etorrira. Bestalde, langabezia-tasa pixka bat handitu zen eta % 10,9an geratu zen, Espainiako batezbestekoa (% 20,9) baino pixka bat beherago, baina euroaren eremuko batezbesteko tasa (% 9,9) baino gorago. Azkenik, kontsumo-prezioak maila handi samarretan mantendu ziren. Hala ere, apiriletik aurrera moteltzeko joera izan dute, abuztuko KPI orokorra % 2,8an utziz eta horren azpiko inflazioa % 1,6an.

Hazkundearen geldialdi ez oso handiko fase hau ez da EAEko ekonomian bakarrik ikusi. Hazkunde ekonomikoaren dezelerazioak mundu osoko ekonomiari eragiten dio: 2010ean serie historikoko gehienezkotik oso hurbil zegoen urteko hazkundea izan zuen (% 5,0), baina azken urtean etengabe dabil erritmoa moteltzen, orain % 3,5 baino pixka bat gorago baino ez dagoela. Dinamismo-galera berdin gertatzen ari da garatutako herrialdeetan eta industrializazio-bidean daudenetan. Horrela bada, Txina, India, Brasil eta Errusiak osatutako blokea 2010eko lehenengo hiruhilekoan %10,7 hazi baten ere, aurtengo hazkundeak %7,8koa izan da. Garatutako herrialdeetan, ekonomia nagusi guztiak aurreko urteetan baino urte arteko tasa txikiagoak izan dituzte. Aipagarria da Erresuma Batuak, Italiak eta Espainiak % 1 baino gutxiagoko hazkundeak dituztela, eta Estatu Batuak eta Frantzia ez direla %2ra iristen. Alemaniak bakarrik dauka garrantzizko hedapen-datua (%2,8), baina aurreko lau hiruhilekoetan eskuratutakoa baino pixka bat txikiagoa da.

Hurrengo hiruhilekoetarako, nazioarteko erakundeen aurreikuspenak ez dira baikorregiak, eta gehienek beherakako berrikuspenak egin dituzte. Munduko ekonomiaren dezelerazioa, eragile ekonomikoen konfiantza-galera, finantza-sisteman sortutako tentsioak, zor subiranoaren inguruko zalantzak, etab. dira 2011ren amaierarako eta 2012rako espero den hazkunde-erritmo ahulagoa justifikatzen duten faktoreetako batzuk.

La industria es el sector que está liderando la recuperación de la economía vasca con un crecimiento del 3,3% en el segundo trimestre, aunque suaviza en cuatro décimas su valor precedente, en un comportamiento que es común al resto de economías europeas. Se debe destacar el resultado obtenido por el sector servicios (1,0%), que mejora en dos décimas el dato anterior y, aunque no es un valor muy elevado, supera las cifras de los ocho trimestres precedentes. El dato más negativo vuelve a estar en la construcción (-5,6%), que no termina de dar muestras de recuperación, condicionada por la falta de dinamismo del sector residencial y por la caída de la inversión pública.

Estas tasas débiles de crecimiento no permiten generar empleo, que registró un descenso interanual de cuatro décimas en el segundo trimestre, por el fuerte deterioro de la construcción y por un menor impulso en la generación de empleo en los servicios. Esta evolución de la producción y del empleo se traduce en un avance de la productividad ligeramente superior al punto porcentual, en línea con los valores anteriores. Por otro lado, la tasa de paro aumentó ligeramente y se situó en el 10,9%, sensiblemente por debajo de la media española (20,9%) pero un punto por encima de la tasa media de la zona del euro (9,9%). Por último, los precios de consumo se mantuvieron en unos niveles relativamente elevados si bien, a partir de abril, muestran una tendencia a la moderación que ha situado el IPC general de agosto en el 2,8% y la inflación subyacente en el 1,6%.

Esta fase de relativo estancamiento en el crecimiento no es exclusiva de la economía vasca. La desaceleración del crecimiento económico afecta al conjunto de la economía mundial, que tras haber alcanzado en 2010 un crecimiento anual (5,0%), muy próximo al máximo de su serie histórica, lleva ya un año de moderación continuada en su ritmo de avance, que se sitúa ahora ligeramente por encima del 3,5%. La pérdida de dinamismo es común a los países desarrollados y a los que están en vías de industrializarse. Así, el bloque formado por China, India, Brasil y Rusia ha pasado de crecer un 10,7% en el primer trimestre de 2010 al actual 7,8%. En el conjunto de los países desarrollados, todas las principales economías han tenido incrementos interanuales inferiores a los precedentes. Cabe señalar que Reino Unido, Italia y España consiguen crecimientos inferiores al 1% y que ni Estados Unidos ni Francia llegan al 2%. Tan solo Alemania ofrece un dato expansivo de importancia (2,8%), pero sensiblemente inferior a los obtenidos en los cuatro trimestres anteriores.

Para los próximos trimestres, las previsiones de los organismos internacionales no son muy optimistas y la mayoría de ellos ha realizado revisiones a la baja. La desaceleración de la economía mundial, la pérdida de confianza de los agentes económicos, las tensiones generadas en el sistema financiero, las dudas en torno a la deuda soberana, etc., son algunos de los factores que justifican ese menor ritmo de crecimiento esperado para el final de 2011 y todo 2012.

Euskal ekonomiari dagokionez, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren aurreikuspenen eguneraketak azaltzen du aurreko hiruhilekoetako hazkunde-erritmo ahula mantenduko dela, eta 2011. urteko batezbesteko hazkundea %0,8koa izango dela aurreikusten du, 2012an %1,4ra handitzeko. Aurtent ez da aldaketarik espero hazkundearen osaeran eta, beraz, kanpo-eskaria izango da urte honetan BPGd-ren hazkunde ia guztia ekarriko duena, nahiz eta 2012an barne-eskariaren eta kanpo-eskariaren arteko banaketa oreaktuagoa izan. Bi izango dira barne-eskaria berreskuratzeko protagonistak: batetik kontsumo pribatua, emaitza hobea izango dituela enplegu garbia galtzeko fasea amaitutakoan (2012ko lehenengo seihiilekoa), eta bestetik kapital-eratze gordina, beherakadak atzean utzi eta hazkunde-tasa positiboak berreskuratuko dituela, nahiz eta oraindik ahulak izan.

Hazkundearen bulkadarik handiena industria-sektore dinamikoagoari, zerbitzuen sektorea hobetzeari eta eraikuntzako beherakada leuntzeari esker etorriko da, nahiz eta aurreikuspen-aldi osoan ezin izango den balio positiboak berreskuratzea lortu. BPGd deflatoreak neurriko portaera izango du hurrengo hiruhilekoetan, eta pixka bat gora egingo du, barne-eskariak abiada hartzen duenean, %2,2an geratu arte. Azkenik, langabezia-tasak egungoak baino balio handiagoa izango ditu, baina 2012ko bigarren hiruhilekoan joera itzultzea espero da, urtearen azken hiruhilekoan %10,0n geratu arte.

En lo que a la economía vasca se refiere, la actualización de las previsiones de la Dirección de Economía y Planificación apunta a un mantenimiento en el ritmo de crecimiento débil de los trimestres anteriores y sitúa el incremento medio del año 2011 en el 0,8%, para aumentar hasta el 1,4% en 2012. En este año no se esperan variaciones en la composición del crecimiento, de forma que será la demanda externa la que aporte la práctica totalidad del incremento del PIB durante este año, si bien en 2012 el reparto entre demanda interna y externa será más equilibrado. La recuperación de la demanda interna tendrá como protagonistas al consumo privado, que mejorará sus resultados una vez que finalice la fase de pérdida de empleo neto (primer semestre de 2012), y a la formación bruta de capital, que dejará atrás sus caídas y recuperará tasas positivas de crecimiento, aunque todavía serán débiles.

El mayor impulso al crecimiento vendrá por un sector industrial algo más dinámico, por una mejora en el sector servicios y por una suavización de la caída en la construcción, aunque no conseguirá retomar los valores positivos en todo el periodo de previsión. El deflactor del PIB tendrá un comportamiento moderado en los próximos trimestres y repuntará ligeramente una vez que la demanda interna tome impulso, hasta situarse en el 2,2%. Por último, la tasa de paro conocerá todavía valores más elevados que los actuales, aunque se espera que la tendencia reivierta en el segundo trimestre de 2012, hasta situarse en el 10,0% en el último trimestre del año.

	2010	2011	2012
BPGd PIB	0,3	0,8	1,4
Azken kontsumoa Consumo final	1,2	0,6	1,1
Kontsumo pribatua Consumo privado	0,9	0,5	1,0
Kontsumo publikoa Consumo público	2,3	1,0	1,3
Kapital eratze gordina Formación bruta de capital	(5,9)	(1,2)	0,2
Barne-eskaria Demanda interna	(0,5)	0,2	0,9
Barne-eskariaren ekarpena Aportación demanda interna	(0,6)	0,1	0,7
Kanpo-saldoaren ekarpena Aportación saldo exterior	0,9	0,7	0,7
BPGd deflatoreoa Deflactor PIB	1,6	1,8	2,2
Enplegua Empleo	(0,9)	(0,4)	0,3
Langabezia-tasa Tasa de paro	9,2	11,0	10,8

2.- Krisiaren aurreko aurrekontu-politika.

2.- La política presupuestaria frente a la crisis.

Krisiaren lehenengo momentuetako zerga-hedapenaren aurrekontu-politika —antzekoa G20ko herrialde guzietan— nabarmen aldatu zen 2010ean. Eskaria laguntzeko politika honek 2009an sortu zituen defizit publiko handien aurrean, Egonkortasun eta Hazkunderako Itunetik eratorritako aurrekontu-egonkortasunaren Europako konpromisoen ondorioz zerga-doikuntza zorrotza ezarri zitzaien Espainiako administrazio guztiei, 2010erako aurrekontuak egitean ere, Eusko Jaurlaritzak, esaterako, hasierako zenbatekoa murriztu zuela aurreko urtearekin alderatuz. Doikuntza-ahalegina berriro biziagotu zen apirilaren 23an “Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010-2012rako beroarekarako ekonomia- eta finaniza-plana” onetsi zenean. Izan ere, plan horrek beherantz zuzendu zuen hasierako aurrekontua, eta hamarren batean murriztu zuen ekitaldirako aurrekuskitalako defizita.

Hala eta guztiz ere, aurrekontuak doitzeako hasierako neurri horiek ez ziren nahikoak izan finaniza-merkatuek EBko herrialde batzuetako (besteak beste Espainiako) kontu publikoen iraunkortasunean zuten konfianza berreskuratzeko eta, horrenbestez, Espainiaren eta bertako autonomia-erkidegoen zor subiranoaren arrisku-prima eta finantzaketa-kostua handitu ziren eta, ondorioz, eragile ekonomiko pribatuen, enpresen eta familien finantzaketa-kostua ere handitu zen. Egoera hori benetan larria izan zen 2010eko maiatzean, Ekonomia eta Finantzen Kontseiluak Grezia erreskatatzea erabaki eta Espainiari egitura erreformatzeko eta gasto publikoa doitzeako beste neurri batzuk eskatu zizkionean. Gobernuak 8/2010 Errege Lege Dekretuan islatu zuen eskaera hori, eta autonomia-erkidegoek ere izan zuten eragina.

Eusko Jaurlaritzak ere zegokion zatia onartu zuen eta, 3/2010 Legearen bitarte, aurrekontuak doitzeko neurriak hartu zituen: soldata-masa %5ean murriztu zuen 2010eko gainerako hiletarako; 30 milioi euroko murritzak egin zituen zenbait funtzionamendu-gastutan eta diru-laguntzetan, eta 34 milioi euro inguruko murritzak farmazia-gastuan. 2010eko uztailaren 5ean adostu zen “Euskal Autonomia Erkidegoaren 2010-2012rako beroarekarako ekonomia- eta finaniza-planaren” eguneraketan azaldutako neurri berrieikin 160 milioi euro inguru murriztu nahi zen defizit publikoa, BPGd-ren %2,4ko helburuan utziz, eta, ondorioz, finantzaketa bila merkatuetara joateko beharra txikiagoa izatea lortuz. Neurriak eraginkorrak izan ziren, eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan 2010erako erabaki zen egonkortasun-helburua bete egin da, %2,28ko defizitarekin.

La política presupuestaria de expansión fiscal en los primeros momentos de la crisis -común en todos los países del G20- cambió de forma radical en 2010. Ante los grandes déficits públicos que esta política de apoyo a la demanda generó en 2009, los compromisos europeos de estabilidad presupuestaria, derivados del Pacto de Estabilidad y Crecimiento, impusieron un fuerte ajuste fiscal a todas las administraciones españolas ya en la elaboración de los presupuestos para 2010 que, en el caso del Gobierno Vasco, disminuyeron su cuantía inicial con respecto al año anterior. El esfuerzo de ajuste se intensificó de nuevo con la aprobación el 23 de abril del “Plan económico-financiero de Reequilibrio de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2010-2012”, que corrigió a la baja el presupuesto inicial y disminuyó en una décima el déficit previsto para el ejercicio.

A pesar de todo, estas medidas iniciales de ajuste presupuestario no sirvieron para recuperar la confianza de los mercados financieros en la sostenibilidad de las cuentas públicas de determinados países de la UE, entre ellos España, por lo que aumentó la prima de riesgo y el coste de financiación de la deuda soberana de España y de sus Comunidades Autónomas, llevando consigo también el aumento del coste de financiación de los agentes económicos privados, empresas y familias. Esta situación se hizo crítica el mes de mayo de 2010, cuando el Ecofin acuerda el rescate de Grecia y exige a España nuevas medidas de reformas estructurales y de ajuste del gasto público que el Gobierno plasma en el Real Decreto Ley 8/2010 y que involucran también a las CCAA.

El Gobierno Vasco asumió su parte adoptando, por Ley 3/2010, nuevas medidas de ajuste presupuestario: reducción de la masa salarial en un 5% en lo que quedaba de 2010; recortes de determinados gastos de funcionamiento y subvenciones por importe de 30 millones de euros y de unos 34 millones en el gasto farmacéutico. Con el conjunto de las nuevas medidas recogidas en la actualización del “Plan económico-financiero de Reequilibrio de la Comunidad Autónoma del País Vasco 2010-2012”, acordada el 5 de julio de 2010, se pretendía reducir el déficit público en unos 160 millones de euros, dejándolo en el objetivo de 2,4% del PIB, y lograr de esta manera una menor necesidad de acudir a los mercados en busca de financiación. Las medidas resultaron eficaces y el objetivo de estabilidad acordado en la Comisión Mixta de Concierto Económico para 2010 se ha cumplido con un 2,28% de déficit.

2011ko aurrekontuetan zerga bateratzeko politikarekin jarraitu da, batez ere gasto publikoa doitzu. Hala ere, aurrekontuen arloan, 2011. urtearen ezaugarria izan da aurrekontuen inguruko arau eta prozedura berriak sartu direla indarrean, aurrekontu-egonkortasunerako politika indartzeko asmoz. Lehenengo eta behin "Europako seihilekoa" sartu da indarrean, Europar Batasunean ekonomia-politikak koordinatu eta ikusatzeko prozedura indartua. Estatu kideetako ekonomia-politikak goizetik koordinatzeak aurrekontu-egonkortasunerako politikari eragiten dio batez ere, eta horretarako, egonkortasun-programa nazionalak eta erreforma-programa nazionalak egin eta erkidegoaren ikuskaritzapean ipini behar dira, hau da, Batzordearen eta Kontseiluaren ikuskaritzapean. Azken finean, Europar Batasuneko administrazio-maila guztien zerga-politikaren eta egitura-erreformen ex ante evaluzioa da. Europako gomendioak aurrekontu-proiektuetara eraman beharko dira.

Egonkortasun eta Hazkunderako Ituna (EHI) indartzearen ondorioz, gasto-erregela berri bat ezarri da Spainian, ziklo ekonomikoko orekaren osagarria dena eta administrazio publikoen gastuaren hazkunde mugatzen duena. Erregela berria uztalean atera zen, eta bertan ezarrita dago gasto nagusiaren hazkunde-tasa ezin izango dela BPGd potentzialaren hazkunde-tasa baino handiagoa izan epe ertainean. Horrela, egonkortasunerako zerga-politikaren prebentzio-alderdia indartzen da, joera proziklikoak saihesten baitira eta aparteko diru-sarrerak zorra murrizteko (eta ez gastua handitzeko) erabiliko direla bermatzen baitu. Erregela berri horrek autonomia-erkidegoei ere eragiten die, nahiz eta oraindik ez den Zerga eta Finantza Politikako Kontseiluaren eremuan eta, gure kasuan, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan garatu.

Azkenik, eta Spainiako aurrekontu-egonkortasunerako politika indartzeko helburu berarekin, 2011ko irailaren hasieran irizpide hau Konstituzioan sartu da, Spainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreformatuz. Estatuak eta autonomia-erkidegoek ezin izango dute izan Europar Batasunak estatu kideetarako ezar ditzakeen mugak gainditzen dituen egitura-defizita. Egitura-orekaren irizpide hau ez da Egonkortasun eta Hazkunderako Itunean dagoenaren desberdina, "aurrekontu-oreka zikloan zehar", baina, zor publikoari muga ipintzen dion zerga-arau berri batek lagunduta dator. Administrazioen zor publikoaren bolumenak, BPGd-ren aldean, ezingo du gainditu Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren ezarritako erreferentzia-balorea.

2011ko lehenengo seihilekoko aurrekontu-egonkortasunaren alorreko araudi-garapen handi honek, zor subiranoaren krisiari erantzutea du helburu, zeina euroaren eremuan dagoen eta Administrazio Publikoen finantzaketa zaitzen eta garestitzen ari den, baita herrialde batzuetako ekonomia guztiak ere, Spainiakoa barne. Agente ekonomiko guztiak —enpresek, familiek eta administrazio espanyiarrek— arrisku-prima handia ordaindu behar dute euren jarduerak finantzatzeko, eta horrek nabarmen eragozten du hazkunde ekonomikoa.

En los presupuestos 2011 se ha continuado la política de consolidación fiscal, especialmente mediante el ajuste del gasto público. Sin embargo, en materia presupuestaria, el año 2011 se ha caracterizado porque han entrado en vigor nuevas reglas y procedimientos presupuestarios tendentes a fortalecer la política de estabilidad presupuestaria. En primer lugar, en 2011 ha entrado en vigor el "Semestre Europeo", un procedimiento reforzado de coordinación y supervisión de las políticas económicas en el seno de la UE. La coordinación temprana de las políticas económicas de los Estados miembro afecta, sobre todo, a la política de estabilidad presupuestaria e implica elaborar y someter a supervisión comunitaria, de la Comisión y del Consejo, los programas nacionales de estabilidad y los programas nacionales de reforma. En definitiva, se trata de una evaluación ex ante de la política fiscal y de reformas estructurales de todos los niveles administrativos de la UE. Las recomendaciones europeas deberán ser trasladadas a sus proyectos de Presupuestos.

El reforzamiento del Pacto de Estabilidad y Crecimiento (PEC) ha implicado el establecimiento en España de una nueva regla de gasto, complementaria a la de equilibrio a lo largo del ciclo económico, y que limita el crecimiento del gasto de las administraciones públicas. La nueva regla, promulgada en julio, establece que la tasa de crecimiento del gasto primario no podrá superar a la tasa de crecimiento del PIB potencial en el medio plazo. Con ello se refuerza la vertiente preventiva de la política fiscal de estabilidad, ya que evita el sesgo procíclico y garantiza que los ingresos excepcionales se destinen a reducir deuda y no a incrementar gasto. Esta nueva regla afecta también a las Comunidades Autónomas, aunque está pendiente de ser desarrollada en el marco del Consejo de Política Fiscal y Financiera y, en nuestro caso, en la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Por último, y con el mismo fin de reforzar la política de estabilidad presupuestaria en España, a principios de septiembre de 2011 se ha producido la consagración constitucional de este principio, mediante la reforma del artículo 135 de la Constitución española. El Estado y las Comunidades Autónomas no podrán incurrir en un déficit estructural que supere los márgenes establecidos, en su caso, por la Unión Europea para sus Estados miembros. Este principio de equilibrio estructural no difiere del ya existente en el PEC de "equilibrio presupuestario a lo largo del ciclo", pero viene complementado con una nueva regla fiscal que establece un límite a la deuda pública. El volumen de deuda pública del conjunto de las Administraciones en relación al PIB, no podrá superar el valor de referencia establecido en el Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

Todo este gran desarrollo normativo en el ámbito de la estabilidad presupuestaria en el primer semestre de 2011 responde a la necesidad de dar respuesta a la crisis de deuda soberana, que afecta a la zona euro y que está dificultando y encareciendo la financiación, no sólo de las Administraciones Públicas sino del conjunto de las economías de algunos países, entre los que se encuentra España. Todos los agentes económicos: empresas, familias y administraciones españolas deben de pagar una elevada prima de riesgo para la financiación de sus actividades, que está obstaculizando seriamente el crecimiento económico.

Araudi- eta ekonomia-testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak gastua murrizteko politikarekin jarraitu du 2011. urtean zehar, 2011rako adostutako BPGd-ren %1,3ko egonkortasun helburua betetze aldera. Egonkortasun helburu askoz zorrotzagoa da, Eusko Jaurlaritzak izan dezakeen defizita murrizten duena BPGd-ren %2,4tik 2010ean %1,3ra 2011n. BPGd-ren 1,1 puntu hauek 740 milioi bat euro suposatzen dute.

Egonkortasunarekiko konpromisoa betetzeko zaitasuna handitu egin da. Izañ ere, 2011. urtean ez da gertatzen 2010ean gertatzen zena: aurreko urteko kupoaren likidazioa Euskal Autonomia Erkidegorako 500 milioi euroko saldo positiboa izan zuena. Aurrekoaz gain, Rover kasuaren inguruko epai negatiboa ere izan behar da kontuan. Hori gauzatzearen ondorioz, 305 milioi euro gutxiagokoak izango dira foru-aldundiek Jaurlaritzari egindako ekarpenak.

Gastuaren murrizketa lortzeko, 2011rako aurrekontuetan hainbat neurri hartu zen, esaterako ordainsariak izoztea eta diru-laguntza eta funtzionamendu-gastuen murrizketa, 2010ean egindakoaren ildotik. Alabaina, aurreikusita zegoena baino okerragoa izan den zerga-bilketa batek doikuntza-politikak indartzera behartu gaitu. Ekainean, defizitari eusteko aurrekontu izaerako agindua eman da eta, aurrekontuaren zenbait ataletan kredituak atxiki dira. Era berean, beste neurri batzuen artean, ez da aurrekontu aldaketarik baimendu ez bazen kontabilitate egokitzapenak egiteko edo salbuespen egoeretarako; diru-laguntzak emateko epeekin zein diru-laguntza jaso dezaketen gastuekin askozaz zorrotzago jokatu da; ez da aurretiazko ordainketarik baimendu hauek suposatzen bazuten diru-laguntza justifikatu baino arinagoko fondoak ematea; eta era berean, bermeak aurkezetik salbuesteko aukera murritzua da. Sektore publikoko erakundeene ustiatze gastuetarako transferentziei dagokienez, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusira itzuli beharko da gehiegiz lortutako zenbatekoa efektiboa ateratzea suposatzen duten gastuen aldean, hain zuzen, ez zaie baimenduko amortizazioak hornitzeko. Hainbat esleipen-irizpide dituzten kontratazio espedienteetan, eskaintzen prezio hobekuntzak sustatzen dira, prezioaren irizpidearen araberako pisu erlatiboa emanez, etab.

En este contexto económico y normativo, el Gobierno Vasco ha seguido a lo largo de 2011 con su política de ajuste del gasto para poder cumplir con el objetivo de estabilidad acordado para 2011 del 1,3% del PIB. Un objetivo de estabilidad mucho más exigente que reduce el déficit en que puede incurrir el Gobierno Vasco, desde el 2,4% del PIB en 2010 hasta el 1,3% en 2011. Estos 1,1 puntos porcentuales de PIB representan unos 740 millones de euros.

La dificultad de cumplir con el compromiso de estabilidad se ha visto agravada porque en 2011 no concurre la circunstancia del pasado año 2010, en el que la liquidación del cupo correspondiente al año anterior tuvo un saldo favorable al País Vasco de más de 500 millones de euros. A esto se ha añadido, además, la sentencia negativa del caso Rover, cuya ejecución representa una disminución de las aportaciones de las Diputaciones Forales al Gobierno de 305 millones de euros.

Para conseguir una reducción del gasto, en los Presupuestos para 2011 se adoptaron un conjunto de medidas, como la congelación de los salarios, y el ajuste de los gastos de funcionamiento y subvenciones, en la línea de lo realizado en 2010. Pero una evolución de la recaudación de los tributos peor de la prevista ha obligado a reforzar las políticas de ajuste. En junio se ha dictado una Orden, con instrucciones de carácter presupuestario para la contención del déficit, y se ha procedido a la retención de créditos en diferentes partidas del presupuesto. Así mismo, entre otras medidas, no se han autorizado modificaciones presupuestarias que no respondieran a adecuaciones contables o a situaciones de excepcionalidad, se ha sido mucho más restrictivo en los plazos para concesión de subvenciones así como en los gastos subvencionables, no se ha permitido realizar pagos anticipados que supusieran entregas de fondos con carácter previo a la justificación de una subvención, e igualmente, se ha restringido la exoneración de garantías. En cuanto a las transferencias corrientes para gastos de explotación a las entidades del sector público, deberán reintegrar a la Tesorería General del País Vasco el importe obtenido en exceso respecto de sus gastos que supongan salida de efectivo, en concreto, no se les permite utilizarlos para dotar amortizaciones. En los expedientes de contratación que cuenten con varios criterios de adjudicación, se incentivan las mejoras de precio en las ofertas, otorgando un peso relativo significativo al criterio del precio, etc.

2012rako aurrekontuak ezjakintasun eta ezezonkortasun uneetan egir dira, ekonomia-hazkunderako mehatxu larriak daudenean, berbarako zor subiranoaren krisia eta euroaren eremuko finantza-sistemaren krisia, ondorioz gure ekonomiaren finantzaketa-kostua oztopatu eta garestitzen direla. Horrek, zalantza barik, atzeratu egiten du gure berezko desorekak konpontzea, esaterako higiezinaren krisia eta enpresa eta familien gehiegizko zorpetzea. Arazo hauetako askoren konponbidea europar testuinguruan dago, eta Europako gobernu ekonomikoaren hobekuntza eta indartzea eskatzen ditu. Eusko Jaurlaritzak konponbidea "Europa gehiago" dela uste du, eta horrexegatik, bere politika ekonomikoa europar gobernuaren gainerako mailekin bateratzen du. Horretarako egonkortasunerako politikan hartzen du parte "2011-2014 aldirako Espainiako Egonkortasun Programa"ren bidez, eta gure testuinguruan, "Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011-2013rako berrorekarako ekonomia- eta finantza-plana"ren bidez, baita "Europa 2020 estrategia"ren egitura-politikan ere, "Espainiako Erreformen Programa Nazionala"ren bidez eta, euskal testuinguruan, "Euskadi 2013 Estrategia"ren bidez.

Horrexegatik, Eusko Jaurlaritzari Europako politika ekonomikoko irizpide guztiak Euskadin praktikara eramateko egiten ari den ahaleginak ematen dion legitimitatetik, Europako agintariekin, batez ere Kontseiluak, Batzordeak eta Europako Banku Zentralak, zor subiranoa eta finantza krisiaren arteko begizta zitala apurtzeko aukera emango duen gobernantza ekonomikoa hobetu beharko dute. Izan ere, European osoaren edo euroaren eremuaren eremuan lor lezakete politika hauek arrakasta. Osterantzean, nazio eta eskualde mailan egingo diren ahaleginak alferrikakoak suerta daitezke.

Gaur egun geure ekonomia-arazo nagusia, baita gizarte-arazo nagusia ere, langabezia da. Beraz, lehentasun handiena duen helburua ere, enpleguia sortzea izan behar da. Baina enpleguia sortu ahal izateko ezinbestekoa da eskari agregatua handitzea. Horretarako, Estatuak, administrazio publikoek, politika hedakorrak jarraitu behar dituzte, diru- eta zerga-arloetako politikak barne. Politika horiek Europako agintaritzen esku daude, eta eskualdeetako agintaritzek oso eremu mugatua daukagu gai honetan esku hartzeko.

Eskualde gisa politika hedakorra egiten badugu, ez dugu enpleguko ondorio onuragarri lortuko, zalantza gehiago sortuko genituzkeelako geure finantza-kaudimenari buruz, eta arrisku-prima muga eutsiezinetara igoz. Horrek eragina izango luke enpresa-sektorean eta familiengan, eta ondorioz kalteak eragindo lituzke kontsumoan eta inbertsio pribatuan eta, azkenik, enpleguan, horixe dela hobetu nahi duguna. Hala ere, Europak bai egin dezake, eta egin behar du. Europaren helburua enpleguia sortzea ere izan beharko da, langabezia-tasa handiak (%10) lehentasun handienetako dela islatzen baitu.

Los presupuestos para 2012 se elaboran en un momento de gran incertidumbre e inestabilidad, con graves amenazas para el crecimiento económico, como la crisis de la deuda soberana y la crisis del sistema financiero en la zona euro, que están obstaculizando y encareciendo el coste de financiación de nuestra economía, lo que sin duda retrasará la solución de nuestros desequilibrios específicos, como la crisis inmobiliaria y el sobreendeudamiento de empresas y familias. La solución a la mayoría de estos problemas se encuentra en el ámbito europeo y requiere de una mejora y fortalecimiento del gobierno económico de Europa. El Gobierno Vasco cree que la solución es "más Europa" y, por ello, alinea su política económica con el resto de los niveles de gobierno europeo, a través de su participación en la política de estabilidad, mediante el "Programa de Estabilidad de España 2011-2014" y, en nuestro ámbito, el "Plan económico financiero de Reequilibrio 2011-2013. Comunidad Autónoma del País Vasco" y en la política estructural de la "Estrategia Europa 2020", mediante el "Programa Nacional de Reformas de España" y, en el ámbito vasco, la "Estrategia Euskadi 2013".

Por ello, desde la legitimidad que otorga al Gobierno Vasco el esfuerzo y sacrificio que está realizando para llevar a la práctica en Euskadi todas las directrices europeas de política económica, se hace necesaria por parte de las autoridades europeas, principalmente Consejo, Comisión y Banco Central Europeo, una mejora de la gobernanza económica, que permita romper de una vez el actual bucle perverso entre la crisis de deuda soberana y la crisis financiera, porque es en el ámbito del conjunto de Europa o de la zona euro donde estas políticas pueden alcanzar el éxito. De lo contrario, los esfuerzos que se realicen en ámbitos regionales o nacionales pueden resultar baldíos.

Actualmente nuestro principal problema económico, y social también, es el paro. El objetivo prioritario, por tanto, debe ser la creación de empleo. Pero para que se cree empleo debe aumentar la demanda agregada. Para ello, el Estado, las administraciones públicas, deben seguir políticas expansivas, incluyendo la monetaria y fiscal. Estas políticas se encuentran en manos de las autoridades europeas, y las autoridades regionales tenemos una capacidad de maniobra muy limitada en este campo.

Si como región seguimos una política expansiva no conseguiremos ninguno de los efectos beneficiosos que tuviera en el empleo, puesto que crearíamos más dudas sobre nuestra solvencia financiera, elevándose a límites insostenibles la prima de riesgo, que se trasladaría al sector empresarial y a las familias, con los efectos perniciosos que ello tendría sobre el consumo y la inversión privada y, finalmente, sobre el empleo, que es lo que pretendemos mejorar. Sin embargo, Europa sí puede y debe hacerlo. El objetivo de Europa debe ser también la creación de empleo, pues la elevada tasa de paro, 10%, hace de ello una de las principales prioridades.

Ekonómia eta Diru Batasunaren helburua ez da inflazioa kontrolatzea izan behar. Horixe da gaur egungo helburua eta, ondorioz, AEBetakoak baino interes-tasa handiagoak ditugu eta, ondorioz, kanbio-tasa handia. Horrek kalte egiten dio kanpo-eskariaren bitartez berreskuratzeko dugun bideari (gaur egun horixe da gure hazkunde-tasa nagusia), familien eta enpresen zorpetze-maila handiaren ondorioz eta Egonkortasun eta Hazkunderako Itunarekin estatuei ezarritako murriketan ondorioz.

Munduan oraindik ere dagoen gehiegizko aurrekinarekin, eta Europako zor-mailarekin (BPGd-ren %80, AEBetakoa baino 20 puntu gutxiagokoa), diru-politika hedakorrak ez lituzke interes-tasak handituko eta, hala ere, aukera emango luke sendotze fiskalerako gure politikak epe laburrerako eragin negatiborki ez izateko eskari agregatuaren gainean. Europako politika ekonomikoak zailtasunak ezartzen ditu krisitik irteteko, eragozpenak ipintzen dizkiolako hazkundeari.

Hala ere, autonomia-erkidegook egin dezagun gauza bakarra baimendutako defizita zorrotz betetzea da. Guk halaxe egingo dugu, baina ez da guztiz beharrezkoa den sendotze fiskala baino gehiago egingo.

Europako politika ekonomikoak Spainian islatzean, irtenbide berdinak planteatzen dira autonomia-erkidegoaren arabera ezberdinak diren arazo eta egoeretarako. Hala ere, eskualdeetan produkzio-egitura, ekonomia- eta enplegu-egoera, eta finantza-egoera eta -tartea ezberdinak direnez, krisitik irteteko irtenbideak ere ezberdinak izan beharko lirateke.

3.- Ekonomia- eta aurrekontu-politikaren orientabideak 2012an

2012rako aurreikuspen ekonomikoak aintzako, eta egun euskal gizarteak eta euskal ekonomiak dituzten erronkak kontuan harturik, 2012an aurrekontu-politika honako hiru helburu handi hauetara dago bideraturik:

- Aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzea

Lehenengo eta behin, Euskadik, 2012an, aurrekontu-egonkortasunarekin dituen konpromisoak betetzen jarraitu behar du eta, ondorioz, Europako gobernu ekonomiko berriaren eremuan, EAEko finantza publikoak iraunkorak izateko beharrezko zerga-sendotze eta doikuntzaren politikarekin jarraituko da. Gaur egun EAEko herritarrek dituzten gizarte-zerbitzuak edo gure produkzio-oinarria modernizatzeko erabiltzen ditugun baliabideak etorkizunean mantentzeko, nahitaezkoa izango da metatzen gabiltzan zorraren interesen etorkizuneko ordainketak ez ditzala kendu gizarte- eta produkzio-gasturako aurrekontu-partidetako ezinbesteko baliabideak.

El objetivo de la UEM no debe ser controlar la inflación, como está siendo actualmente, lo que nos lleva a tener tipos de interés superiores a los de EEUU, y a tener por ello un tipo de cambio elevado, que perjudica nuestra recuperación por el lado de la demanda externa, (actualmente es nuestra principal vía de crecimiento) dado el elevado nivel de endeudamiento de las familias y de las empresas y de las restricciones impuestas a los Estados en el seno del Pacto de Estabilidad y Crecimiento.

Con el exceso de ahorro que sigue habiendo en el mundo y con el nivel de deuda de Europa, (el 80% de su PIB, veinte puntos inferior al de EEUU), una política monetaria expansiva no elevaría los tipos de interés y, sin embargo, permitiría que nuestra política de consolidación fiscal no tuviera efectos negativos a corto plazo sobre la demanda agregada. La política económica europea está dificultando la salida de la crisis porque está impidiendo el crecimiento.

Sin embargo, las Comunidades Autónomas no podemos hacer otra cosa que cumplir escrupulosamente el déficit autorizado. En nuestro caso así será, pero tampoco se hará más consolidación fiscal que la estrictamente necesaria.

La traslación en España de la política económica europea está planteando soluciones iguales para problemas y situaciones que son diferentes según qué Comunidad Autónoma. Sin embargo, dado que ni la estructura productiva, ni la situación económica y de empleo, ni la situación y margen financiero son las mismas en las diferentes regiones, las soluciones para salir de la crisis no deberían ser las mismas.

3.- Orientaciones de la política económica y presupuestaria en 2012

Teniendo en cuenta las previsiones económicas para 2012 y los retos que tiene planteados la economía y la sociedad vascas en este momento, la política presupuestaria en 2012 está orientada al logro de los siguientes tres grandes objetivos:

- Cumplimiento del objetivo de estabilidad presupuestaria

En primer lugar, Euskadi debe seguir cumpliendo en 2012 sus compromisos con la estabilidad presupuestaria, por lo que se va a continuar, en el marco del nuevo gobierno económico de Europa, con la política de ajuste y consolidación fiscal necesaria para la sostenibilidad de las finanzas públicas vascas. El mantenimiento en el futuro de las prestaciones sociales que actualmente disfruta la ciudadanía vasca o de los recursos que dedicamos a la modernización de nuestra base productiva, exige que el pago futuro de los intereses de la deuda que estamos acumulando no detraiga recursos imprescindibles de las partidas presupuestarias destinadas al gasto social y productivo.

Alabaina, gizarte- eta produkzio-gastuaren etorkizuneko iraunkortasuna lortu behar da egungo murrizketek duten uzkurdura-eraginak ekonomia hazkundetik urrundu barik, baina hori gabe ere ezingo zaio eutsi epe luzean. Orainaren eta etorkizunaren arteko oreka zail hori lortzea bada aurrekontu-politikak duen erronka, Euskadin edo Espanian ez ezik herrialde garatu gehienetan ere. Afera hau konpondu beharko duen zerga- eta ekonomia-politikaren artikulazioak Europako ingurukoa behar du. Hori horrela, euskal aurrekontuek arrakasta handiagoa izango dute Europako zerga-politikarekin lerratzen diren heinean. Erkidegoko politikatik aldenduz gero, aparteko garestitzea izango luke finantzaketak, eta Jaurlaritzaren kreditu-kaudimenarenenganako konfianza urrituko litzateke.

“Euskal Autonomia Erkidegoaren 2011-2013rako berrorekarako ekonomia- eta finantza-planak”, 2011ko uztailaren 20an Estatuko Administrazio Orokorrarekin itunduta, urte anitzeko aurrekontu-agertokiak ezartzen ditu EAEko Administrazio Orokorraren 2012ko urteko aurrekontuak kokatzeko. Agertoki horretan aurreikusitakoaren arabera, euskal ekonomiak % 3,8ko hazkunde nominala izango du 2012an, eta 9.921 milioi euroko diru-sarrera ez finantzarioak. Plana egiteko orduan egindako diru-sarreren aurreikuspen hori, beherantz zuzendu da diru-bilketaren alorreko azkeneko datu eta joerak ezagutzean baita “Euskal Y”-ren kudeaketa gomendiotik eratorritako diru-sarreren aurreikuspen desberdinagatik ere. Horrela, Foru Aldundien ekarpeneen zenbatekoa zehaztu ostean urriaren 14an Herri Dirubideen Euskal Kontseiluan, Eusko Jaurlaritzaren eragiketa ez-finantzarioen ondoriozko diru-sarrerak 9.232 milioi eurokoak dira 2012rako.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegorako 2012ko egonkortasun-helburuak BPGd-ren % 1,3an ezartzen du egin litekeen defizita, hau da, 926 milioi eurotan. Zenbateko biak batuta, gastu ez finantzarioaren gehienezko muga 10.158 milioi euroka izango da 2012an. Edozelan ere, aurrekontuen proiektuaren gasto ez-finantzarioa 10.114 milioi euroka da (10.115 milioi, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), izan ere, finantzaketa premia %1,3koa baino pitin bat txikiagoa da.

Eskuragarri dauden baliabide horiek gastu-politika ezberdinaren artean esleitzeko, lehentasuna izan beharko dute, alde batetik, enplegua sortzeko gaitasuna izango duen ekonomia produktiboago baten oinarriak ezartzen eta, bestetik, krisiaren eragin larrienak jaso dituzten herritarrei laguntzeko aukera handiena ematen duten elkartasun-mekanismoa sendotzen hobeto lagunduko duten politikek.

- Enplegua sortzeko gaitasuna izango duen ekonomia produktiboagoa lortzea.

Pero el logro de la sostenibilidad futura del gasto social y productivo se debe conseguir sin que el efecto contractual de su recorte actual aleje a la economía de un crecimiento, sin el cual tampoco será posible su mantenimiento en el largo plazo. Alcanzar este difícil equilibrio entre presente y futuro es un desafío que tiene planteado la política presupuestaria, no solamente en Euskadi o España sino en la mayoría de los países desarrollados. La articulación de la política económica y fiscal que deberá resolver esta disyuntiva, solo puede ser de ámbito europeo, por lo que los presupuestos vascos lograrán su mayor efecto en la medida en que se coordinen y alineen con la política fiscal europea. Alejarnos de la política común nos supondría un encarecimiento extra de la financiación y un menoscabo de la confianza en la solvencia crediticia del Gobierno.

El “Plan económico-financiero de Reequilibrio 2011-2013 de la Comunidad Autónoma de Euskadi”, acordado con la Administración General del Estado el 20 de julio de 2011, establece unos escenarios presupuestarios plurianuales que enmarcan los presupuestos anuales de Administración General de la CAE de 2012. Dicho escenario contempla una previsión de crecimiento nominal de la economía vasca en 2012 del 3,8% y unos ingresos no financieros de 9.921 millones de euros. Esta previsión de ingresos realizada en el momento de la elaboración del Plan se ha visto corregida a la baja por los últimos datos y tendencias conocidos en materia de recaudación, así como por la diferente estimación de los ingresos derivados de la encomienda de gestión de la “Y vasca”. De este modo, tras la determinación de la cifra de aportaciones de las Diputaciones Forales en el Consejo Vasco de Finanzas de 14 de octubre, los ingresos por operaciones no financieras del Gobierno Vasco para 2012 se elevan a 9.232 millones de euros.

Por otra parte, el objetivo de estabilidad para la Comunidad Autónoma en 2012 cifra el déficit en que se puede incurrir en el 1,3% PIB, lo que equivale a 926 millones de euros. La suma de ambas cifras nos permite un techo máximo de gasto no financiero en 2012 de 10.158 millones de euros. No obstante, el gasto no financiero del proyecto de presupuestos es de 10.114 millones de euros (10.115 millones, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos) debido a que la necesidad de financiación es ligeramente inferior al 1,3%.

La asignación de estos recursos disponibles entre las diferentes políticas de gasto debe priorizar aquellas políticas que mejor contribuyan a, por una parte, sentar las bases de una economía más productiva capaz de generar empleo y, por otra, a reforzar los mecanismos de solidaridad que mejor permitan ayudar a la población más perjudicada por la crisis.

- Lograr una economía más productiva capaz de generar empleo.

Krisitik irteteko fase geldoa dugu hau. Jaurlaritzaren helburu berehalakoena euskal ekonomiaren gaur egungo hazkunde-erritmoa bizkortzea da, emplegu egonkorra eta kalitatezko sortzeko ezinbesteko baldintza gisa. Baino epe laburrerako helburu horrek ez du epe ertain eta luzerako helburua ilundu behar, hau da: hazkunde iraunkorra egoteko aukera emango duen produkzio-eredu berria. Gobernu honek, Europa 2020 estrategiak bezala, hiru alderitan ikusten du iraunkortasuna: ekonomian, gizartean eta ingurumenean. Aurreko hazkunde-ereduaren akatsak saihestuko dituzten eta hazkunde ekonomiko egoki eta sendoagorako oinarriak ezartzeko balioko duten sustapen-politiketik izango dute lehentasuna. Hazkundearren iturriak jakintza eta berrikuntza izango dituen produkzio-eredu berria lortu nahi da. Produktibitatea eta lehiakortasuna handitzean oinarrutako hazkundea, azken helburua emplegu sortzea eta herritarren oparotasuna handitzea izango duena.

- Euskal gizarte solidarioago eta kohesionatuagoa lortzea, empleguaren eta hezkuntzaren bitartez.

Hazkunde ekonomikoaren bilaketak ezin digu ahaztarazi, krisiaren ondorioz, atzeralditik ateratzen ari garen honetan, gizarte-taldeen artean sortzen ari diren desorekak. Gobernu honek ez du gura atzeralditik ateratzeak euskal gizartearen berdintasunaren eta errenta banaketaren arazoak sakontzerik. Horrexegatik, aurrekontu hauetan segitzen dugu garrantzia ematen krisiak gehien kaltetu dituenden errenta sustengatzeko partidei. Baino, gainera, ikuspegি berria eman gura diegu gizarte-politika eta -gastuari, bere gizarteratze funtzioa era eraginkorragoan bete dezaten. Emplegu-politika aktibo eta pasiboak gauzatzeko artikulazio berriaren xeda, emplegu eta hazkunde ekonomikoa handitzeaz gain, krisiaren eragin larrienak jasaten dituzten pertsonak gizarteratzea ere badela ezartzen da. Dirusarrerak Bermatzeko Errenta Lanbidek, empleguko politika aktiboak kudeatzen dituen erakunde berberak, kudeatzeak bere hartzaleak gehiago aktibatzen lagunduko du, baita euren lan-merkaturatzearen bidez, gizarteratze eraginkorrago bat lortzen ere.

Hala ere, gizarteratzeko eta epe luzean gizartearen aurrera egiteko mekanismorik izugarriena hezkuntza da. Hezkuntza-sistema, hazkunde ekonomikoa eta giza kapitala prestatzen laguntzen duen tresna izateaz gain, tresnarik onena da herritar guztiak aukera-berdintasuna lortzeko, eta horrexegatik da gizarte-kohesiorako mekanismorik eraginkorrena. Testuingurua hori dela, Jaurlaritzaren ekintzak lehentasuna eman behar dio bizi osoko hezkuntza eta prestakuntzari, gure gizarteko arlo eta ikuspegি guztieta jakintza sortu eta eskualdatzeko oinarrizko ardatza baita.

4.- 2012ko Aurrekontu Orokoren ezaugariak

Nos encontramos en una fase de lenta salida de la crisis. El objetivo más inmediato del Gobierno es lograr acelerar el actual ritmo de crecimiento de la economía vasca como condición indispensable para generar empleo estable y de calidad. Pero este objetivo a corto no debe oscurecer el objetivo a medio y largo plazo: un nuevo patrón productivo que permita un crecimiento sostenible. Este gobierno entiende la sostenibilidad, al igual que la estrategia Europa 2020 en la triple vertiente: económica, social y medioambiental. Serán prioritarias aquellas políticas de fomento que eviten los errores del modelo anterior de crecimiento, y que sirvan para sentar las bases de un crecimiento económico más sano y robusto. Un nuevo patrón productivo donde las fuentes de crecimiento sean cada vez más el conocimiento y la innovación. Un crecimiento basado en el incremento de la productividad y la competitividad cuya última finalidad es generar empleo y elevar la prosperidad de la población.

- Lograr una sociedad vasca más solidaria y cohesionada mediante el empleo y la educación.

La búsqueda del crecimiento económico no puede hacernos olvidar las grandes asimetrías que, como consecuencia de la crisis, se están produciendo entre grupos sociales en estos momentos de salida de la recesión. Este Gobierno no quiere que la salida de la crisis suponga agravar los problemas de equidad y de distribución de la renta en la sociedad vasca. Por eso, en estos presupuestos seguimos dando gran relevancia a las partidas destinadas al sostenimiento de la renta de los más perjudicados por la crisis. Pero, además, queremos dar un nuevo enfoque a la política y al gasto social para que sea más efectiva en su labor de inclusión social. Se establece una nueva articulación de las políticas activas y pasivas de empleo que busca, además de aumentar el empleo y el crecimiento económico, la inclusión social de aquellos colectivos más golpeados por la crisis. La gestión de la Renta de Garantía de Ingresos por el mismo organismo que gestiona las políticas activas de empleo, Lanbide, contribuirá a una mayor activación de sus perceptores y, mediante su incorporación al mercado de trabajo, a una más efectiva inclusión social.

Pero el mecanismo más formidable de inclusión y progreso social a largo plazo es la educación. El sistema educativo no sólo contribuye a la formación de capital humano y al crecimiento económico sino que es el mejor instrumento para conseguir la igualdad de oportunidades de todos los/las ciudadanos/as y, en este sentido, el mecanismo más eficaz de cohesión social. En este contexto, la acción del Gobierno debe priorizar la educación y la formación a lo largo de toda la vida de la persona como eje básico para crear y transmitir el conocimiento en todas las áreas y facetas de nuestra sociedad.

4.- Características de los Presupuestos Generales de 2012

Baliabide guztiengen zenbatekoak, finantzarioak eta ez-finantzarioak, 10.449 milioi eurokoa da. Zenbateko honek errespetatu egiten du hitzartutako aurrekontu egonkortasunaren konpromisoak betetzeko sendotze fiskalaren bidea, horren bitartez BPGd-ren $-1,3\%$ gehienezko defizita ezarri zela 2012rako, hau da, 930 milioi euro inguru.

Herri Dirubideen Euskal Kontseiluaren 2012ko bilketaren aurreikuspena 12.117 milioi eurokoa da, 2011ko itxiera-aurreikuspena baino $+3,6\%$ handiagoa, tasa hori bat datorrela BPGd-ren hazkunde nominalerako aukerekinean. Aurreikuspen horretan kontuan hartu da Auzitegi Nagusiaren Rover kasuaren inguruko epaia gauzatzearen ondorioz espero den zergen ondoriozko diru-sarreren murrizketa, eta zuhurtzia irizpidea erabili da egoera ekonomikoaren ziurgabetasunen ondorioz, 2012an bilketa-eraginaz izango luketen zerga-arloko neurriak onetsiko diren hipotesia ez sartza erabaki delako, nahiz eta, erakundeek esaten dutenaren arabera, 2012an eraginaz izango duten zerga-arloko neurriak hartuko direla ematen duen. Hala ere, ez dagoenez guztiz zehaztuta eta, ondorioz, aurreikuspen kuantitatiboa zehazteko zailtasunak daudenez, bilketa osagarria ez da kontuan hartu, azaldu berri den arrazoiaengatik.

Foru-aldundiek 2012ko aurrekontuari egindako ekarpenak 8.495,68 milioi eurokoak izan dira, 2011n hasieran aurreikusitakoa baino $+2\%$ gutxiago. Ekarpen horiek kalkulatzean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak zalantzan ipini dituen zerga-erregimenekin lotuta foru-aldundiek dagoeneko egindako laguntzen berreskurapena ere hartu da kontuan, banatu beharreko diru-sarrera handiagotzat hartuta. Ekarpenak horiek direla, Eusko Jaurlaritzaren diru-sarrera ez finantzarioen aurrekontua 9.232 milioi eurotan ezarri da, hau da, $+1,3\%$ gutxiagotuko dira 2011koekin alterratuta.

Gastuaren aldetik, gastu ez-finantzarioak, 10.114,5 milioi eurokoak direnak (10.115,0 milioi, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), $-0,5\%$ murrizten dira 2011koen aldean, eta $+1,69\%$ 2011ko aurrekontuan Aparteko Plana kontuan hartzen bada.

Aurrekontu osoa kontuan hartuta, 10.449,2 milioi eurokoa dela, murrizketa -1% koa da. Eusteko ahalegina argiago ikusten da langileria-gastuak eta Abiadura Handiko Trenaren finantzaketa kontuan hartzen ez badira (langileria-gastuek kostu finkoko izaera dute, eta gastu osoaren $35,3\%$ dira, eta Abiadura Handiko Trena Administrazio Zentralak finantzatzen du). Horrela, aurrekontuaren murrizketa $-3,73\%$ koa da.

Gastu publikoaren murrizketa honek, Aurrekontuak egiteko ezarri ziren Jarraibide Ekonomikoan austerritate-irizpideak gauzatzentzu ditu, baina ez dio uko egiten ongizatearen estatuaren oinarritzko zerbitzuak mantentzeari.

El montante de recursos totales, financieros y no financieros, asciende a 10.449 millones de euros. Esta cifra respeta la senda de consolidación fiscal pactada para cumplir los compromisos de estabilidad presupuestaria, que establece un déficit máximo para 2012 del -1,3% del PIB, es decir unos 930 millones de euros.

La previsión de recaudación en 2012 del Consejo Vasco de Finanzas alcanza los 12.117 millones de euros, un 3,6% más que la previsión de cierre de 2011, tasa coincidente con las expectativas de crecimiento nominal del PIB. Esta previsión ha tomado en consideración la reducción de ingresos tributarios esperada como consecuencia de la ejecución de la Sentencia del Tribunal Supremo en relación con el caso Rover y, con un criterio de prudencia por las incertidumbres del panorama económico, se ha optado por no incorporar hipótesis de aprobación de medidas tributarias con efecto recaudatorio en 2012. Esto a pesar de que, a la vista de cómo se van pronunciando las distintas instituciones, la adopción de medidas tributarias con efectos en 2012 parece un escenario factible. Pero, por lo incierto de su concreción y, por tanto, por las dificultades para determinar una previsión cuantitativa, no se ha tomado en consideración recaudación adicional por este motivo.

Las aportaciones de las Diputaciones Forales al presupuesto 2012 -en cuyo cálculo también se ha tenido en cuenta, como un mayor ingreso sujeto a reparto, la recuperación de ayudas ya efectuada por las Diputaciones Forales en relación con los regímenes fiscales cuestionados por el Tribunal de Justicia de la Unión Europea- ascienden a 8.495,68 millones de euros, un 2% inferior a la presupuestada inicialmente en 2011. Con todo ello, el presupuesto de ingresos no financieros del Gobierno vasco queda establecido en 9.232 millones de euros, es decir, disminuirán un 1,3% respecto al 2011.

Por el lado del gasto, los gastos no financieros, que ascienden a 10.114,5 millones de euros (10.115,0 millones, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos) disminuyen en un 0,5% respecto a 2011, y un 1,69% si se considera en el presupuesto de 2011 el Plan Extraordinario.

Tomando en consideración el conjunto del presupuesto, que asciende a 10.449,2 millones de euros, el descenso es del 1%. El esfuerzo de contención se visualiza más claramente si no se tienen en cuenta tanto los gastos de personal, que tienen el carácter de coste fijo y que representan el 35,3% del gasto total, como la financiación del Tren de Alta Velocidad, que financia la Administración Central. En tal caso, el presupuesto se reduce en el 3,73%.

Este ajuste del gasto público materializa los criterios de austerridad que fueron establecidos en las Directrices Económicas para la elaboración de los presupuestos, pero sin renunciar a mantener los servicios básicos del estado de bienestar.

Ildo berean, langileria-gastuei eusten jarraitu da, kudeaketa eta antolaketa mailako neurriak hartuz, irizpide murritztaileak ezarriz, eta lanpostuak betetzeko, ordezteko eta behin-behinean kontratatzeko kudeaketarako kontrol-mekanismoak eta prozedurak ezarri. Aurrekontu-plantilla ez da handitu 2011ko abenduaren 31n zeuden lanpostuen guzizko agregatuarekin alderatuz. Neurri horiek guztiak aplikatuta, I. kapituluaren azaldutako langileria-gastua 1.954,4 milioikoa da, eta %1,9 hazi da, kopuru apala dela, kontuan hartzen badugu transferentzia berriei lotutako plantilla ere badagoela bertan (16,1 milioi euroko zenbatekoarekin). Transferentzia berriak kontuan hartu gabe, homogeneoagoa da erkaketa, eta I. kapituluko gastuak %1,1 baino ez dira hazten horrela.

II. eta IV. kapituluetan ere austerritatea ikusten da. Gasto arruntetarako transferentzia eta diru-lagunzek %3,4 egin dute behera (%3,5, Eusko Legebiltzarren Aurrekontuak onartu ondoren). Horretarako, aurrekontua egitean jarraibide honi jarraitu zaio: II. eta IV. kapituluetako gastuak (Administrazio instituzionaleko erakundeei egindako transferentziak eta aurrekontuen urteko legeetan araututako finantzaketa dutenak izan ezik) %5eko murrizketarekin azaldu dira aurrekontuetan. Izaera sozial nabaria duten sailetan txikiagoa izan da murrizketa: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean %1,7 bakarrik murritztu da; Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari dagokionez, bere partidetan sartu dira Lanbideren finantzaketa-transferentziak, eta horrexegatik %1,2 bakarrik murritztu da; Justizia eta Herri Administrazio Sailean % 12,7 hazi da, batez ere IVAPi eskualdatu zaizkiolako administrazio publikoko langileak prestatzeko INAP delakoaren funtsak (politika aktiboen transferentziaren barruan zeuden).

Funtzionamendu-gastuei buruzko II. kapituluari dagokionez, %1,2 txikiagotu dira, baina Osakidetzaren programa-kontrataua kontuan hartu gabe %9 inguru txikiagotzen dira gainerako partidak. Izan ere, Osakidetzaren programa-kontratuak %1,6 hazten du aurrekontua, gero eta handiagoa den osasun-eskariari behar bezala egiteko aurre.

En esta línea, se sigue incidiendo en la contención de los gastos de personal, tomando medidas de gestión y organizativas, fijando criterios restrictivos, mecanismos de control y procedimientos para la gestión de la cobertura de puestos, sustituciones y contratación temporal. No se incrementa la plantilla presupuestaria con respecto al total agregado de las plazas existentes al 31 de diciembre de 2011. Con todas estas medidas, el gasto de personal incluido en el capítulo I asciende a 1.954,4 millones y crece un 1,9%, una cantidad modesta si se tiene en cuenta que en ella va incluida también la plantilla asociada a las nuevas transferencias, con un importe de 16,1 millones de euros. Sin tener en cuenta las nuevas transferencias, lo que nos permite una comparación más homogénea, los gastos de capítulo I sólo suben el 1,1%.

La austerridad se extiende también a los capítulos II y IV. Las transferencias y subvenciones de gastos corrientes disminuyen el 3,4% (3,5%, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos). Para ello, en la elaboración del presupuesto se ha seguido la directriz de que los gastos de los capítulos II y IV, exceptuando los correspondientes a las transferencias a Entidades de la Administración Institucional y otras cuya financiación viene regulada en las Leyes anuales de Presupuestos, se han presupuestado con una reducción del 5%. Es en los Departamentos de marcado carácter social donde esta reducción es menor: en concreto en el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, donde sólo se reduce el 1,7%, el Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, en cuyas partidas se incluyen las transferencias de financiación de Lanbide y por eso se reduce sólo el 1,2% y el Departamento de Justicia y Administración Pública, donde aumenta el 12,7%, en gran medida debido a que se le ha transferido al IVAP los fondos del INAP para la formación del personal de la Administración Pública y que estaban en la transferencia de las Políticas Activas.

Respecto al capítulo II de gastos de funcionamiento, éstos bajan el 1,2%, pero si se excluyen de ellos el contrato programa de Osakidetza, que aumenta el presupuesto el 1,6% para poder hacer frente eficazmente a la creciente demanda sanitaria, el resto de partidas disminuyen en torno al 9%.

Jarraibideetan ezarri den bezala, inbertsio publikoa izan da gehien doitu den kapitulua. Lehenengo, 2012rako konprometitutako kredituei aurre egiteko beharrezko zenbatekoak hornitu dira. Irizpide orokor lez, VI., VII. eta VIII. kapituluuen gauzatzea mantentzen da 2011ko hasierako aurrekontuan aurreikusitako urte anitzeko programazioaren eta erritmoen arabera. Gainera, konpromiso berriak hartzeko aukera nabarmen murrizten da kapituluotan. Hala eta guztiz ere, inbertsioak %2,1 bakarrik gutxiagotu dira eta (%4,4, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), "Euskal Y" izeneko sarearen eragina kenduta, beherakada 9,1ekoia izan arren (%10,8, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), eta kapital-eratzea %8,6 murriztu den arren (%8,2, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), zenbateko garrantzitsuak ditu oraindik: 1.013 milioi euro (1.017 milioi, Eusko Legebiltzarrauk Aurrekontuak onartu ondoren), guztizko aurrekontuaren % 10 inguru.

Diru-sarreren galera dagoenez eta oinarrizko zerbitzu publikoak mantendu direnez, nabarmen hazi da zorraren zerbitzua, zor publikoaren amortizazioa eta interesen ordainketa, % 29, hain zuzen ere, 419,6 milioi euro baino gehiago. Bertatik 250 milioi interesen ordainketari dagokie.

Ez da sektore publikoko erakunde berrikin sortu. Lehenengo aldiz fundazio eta partzuergoak sartu dira aurrekontuan, aurrekontu araubidearen testu bategina onartzen duen legegintza-dekretuan ezarritakoa betez, gardenagoa izan dadin.


Defizita eta zorraren amortizazioa finantzatzeko 1.207,8 milioi euroko zorra jaulkiko da. Beraz, zorpetze garbia, zorraren epemugak ordaindu ondoren, 1.038,3 milioi eurokoa izango da, aurreko ekitaldian baino %2 gehiagokoa.

La inversión pública, tal y como se ha marcado en las directrices, ha sido el capítulo más ajustado. Se han dotado, en primer lugar, los importes necesarios para hacer frente a los créditos comprometidos para 2012. Como criterio general se mantiene la ejecución de los capítulos VI, VII y VIII, conforme a los ritmos y la programación plurianual prevista en el Presupuesto Inicial de 2011, y se restringe severamente la adopción de nuevos compromisos en estos capítulos. No obstante, las inversiones disminuyen sólo el 2,1% (4,4%, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos) aunque, si descontamos el efecto de la "Y vasca", la bajada es del 9,1% (10,8%, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos) y, aunque la formación de capital cae el 8,6% (8,2%, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos), ésta aún mantiene cifras importantes: 1.013 millones de euros (1.017 millones, después de la aprobación por el Parlamento de los Presupuestos), aproximadamente el 10% del presupuesto total.

La consecuencia de la quiebra de ingresos unida al mantenimiento de las prestaciones públicas esenciales es que el servicio de la deuda, el pago de los intereses y la amortización de la Deuda Pública, crecen de forma muy importante, un 29%, alcanzando los 419,6 millones de euros. De ellos, 250 millones corresponden al pago de intereses.

No se crean nuevas entidades del sector público. Por primera vez en el Presupuesto se incluyen las fundaciones y consorcios, en cumplimiento del decreto Legislativo que aprueba el Texto Refundido de Régimen Presupuestario, en aras a una mayor transparencia.

Para financiar el déficit y la amortización de la deuda se emitirá deuda por valor de 1.207,8 millones de euros, lo que implica un endeudamiento neto, tras el pago de los vencimientos de deuda, de 1.038,3 millones de euros, que representa un 2% más que en el ejercicio anterior.



POLITIKA PUBLIKOAK

Gastuen aurrekontuaren sailkapen funtzionalak Jaurlaritzak aurrekontuaren bidez lortu nahi dituen helburu eta lehentasunen ikuspegia ematen du, baita helburu horiek lortzeko aurreikusitako jardueren ikuspegia ere. Labur esanda, ekitaldian garatu nahi dituen politika publikoei esleitutako balaiabideak biltzen ditu.

Eusko Jaurlaritzak 2012ko aurrekontuetan aintzat hartzen dituen gastuen helburu, 27 gasto-funtzio edo -politika dira. Gasto horiek, berriz, 9 funtzio-talde edo gasto-arlo handitan sailkatuta daude. Haien garrantzi ekonomikoagatik, honako hauek azpimarratu beharra dago: izaera sozialeko ondasun publikoen produkzioa (gasto osoaren %62,3), eta, hortik oso atzera, izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkzioa (%9,8), babes zibila eta herriarren babesea (%6,2), eta segurtasuna, babesea eta gizarte-sustapena (%9,0).

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak gasto sozialean espezializatu dira, geure araudiak gainerako administrazioekin edo gobernu-mailekin (Estatuko Administracio Orokorra, foru-aldundiak eta tokikorporazioak) ezarri dituen eskumen-banaketaren ondorioz. Gasto sozialaren barruan osasuna (gasto osoaren %32,5) eta hezkuntza (%24,5) dira garrantzi handiena duten politikak.

Ondoko koadroan xehetasun handiagoz ikus daitezke gasto-politikaren guztizkoa, politika bakoitzari dagozkion balaiabideak eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta zenbatekoek izan duten bilakaera.

Oharra: Agiri honen aurrekontu datuak Eusko Legebiltzarrak onartutakoei dagozkie, parlamentuko zuzenketen izapidetzaren ondoren.

POLÍTICAS PÚBLICAS

La clasificación funcional del presupuesto de gastos ofrece una visión de los objetivos y prioridades que persigue el Gobierno con el presupuesto, así como de las actuaciones previstas para alcanzar tales objetivos. En definitiva, recoge los recursos asignados a las diferentes políticas públicas que pretende llevar adelante en el ejercicio.

Los gastos presupuestados del Gobierno Vasco para 2012 se asignan a 27 funciones o políticas de gasto agrupadas en 9 grandes grupos funcionales o áreas de gasto. Por su importancia económica destacan: la producción de bienes públicos de carácter social (62,3% del gasto total), seguido a gran distancia por la producción de bienes públicos de carácter económico (el 9,8%) y la protección civil y seguridad ciudadana (un 6,2%) y la seguridad, protección y promoción social (un 9,0%).

Esta especialización en gasto social de los presupuestos del Gobierno Vasco es debida al reparto competencial que nuestra normativa ha establecido con las restantes administraciones o niveles de gobierno: Administración General del Estado, Diputaciones Forales y Corporaciones Locales. Dentro del gasto social, la sanidad (32,5% del gasto total) y la educación (24,5%) son las políticas de mayor importancia.

En el cuadro siguiente se puede observar con mayor detalle el conjunto de políticas de gasto con los recursos destinados a cada una de ellas, así como su evolución en comparación con el ejercicio anterior.

Observación: Los datos presupuestarios de este documento corresponden a los aprobados por el Parlamento Vasco, después del trámite de enmiendas parlamentarias.

MILA

MILES

FUNTZIO TALDEA/FUNTZIOA GRUPO FUNCIONAL/FUNCIÓN	2012	Guztizkoaren araberako % % s/total	2011	Guztizkoaren araberako % % s/total	2012/2011 hazkundearen % % Incremento 2011/2010
0 Zor publikoa 0 Deuda Pública	419.612,0	4,0	325.651,9	3,1	28,9
01 Zor publikoa 01 Deuda Pública	419.612,0	4,0	325.651,9	3,1	28,9
1 Zerbitzu orokorrak 1 Servicios de carácter general	473.237,4	4,5	505.916,1	4,8	(6,5)
11 Goi Zuzendaritza, autonomía- erkidegoa eta gobernu 11 Alta Dirección Comunidad Autónoma y Gobierno	60.149,0	0,6	58.515,5	0,6	2,8
12 Administratio Orokorra 12 Administración General	185.157,4	1,8	210.777,2	2,0	(12,2)
13 Kanpo Harremanak 13 Relaciones Exteriores	60.184,9	0,6	62.290,4	0,6	(3,4)

FUNTZIO TALDEA/FUNTZIOA GRUPO FUNCIONAL/FUNCIÓN	2012	Guztizkoaren araberako % % s/total	2011	Guztizkoaren araberako % % s/total	2012/2011 hazkundearen % % Incremento 2011/2010
14 Justizia 14 Justicia	167.746,1	1,6	174.332,9	1,7	(3,8)
2 Babes Zibila eta Herritarren Segurtasuna 2 Protección Civil y Seguridad Ciudadana	645.131,7	6,2	691.728,8	6,6	(6,7)
22 Segurtasuna eta Babes Zibila 22 Seguridad y Protección Civil	645.131,7	6,2	691.728,8	6,6	(6,7)
3 Segurtasuna, Babesa eta Gizarte Sustapena 3 Seguridad, Protección y Promoción Social	939.290,3	9,0	955.403,6	9,1	(1,7)
31 Segurtasuna eta Babes Soziala 31 Seguridad y protección social	470.064,5	4,5	541.354,1	5,1	(13,2)
32 Gizarte Sustapena 32 Promoción Social	469.225,8	4,5	414.049,5	3,9	13,3
4 Izaera sozialeko ondasun publikoen produkazioa 4 Producción de bienes públicos de carácter social	6.504.666,7	62,3	6.583.642,4	62,4	(1,2)
41 Osasuna 41 Sanidad	3.399.651,2	32,5	3.412.689,1	32,3	(0,4)
42 Hezkuntza 42 Educación	2.561.306,5	24,5	2.581.856,3	24,5	(0,8)
43 Etxebizitza eta Hirigintza 43 Vivienda y Urbanismo	153.207,3	1,5	171.036,8	1,6	(10,4)
44 Erkidegoko Ongizatea 44 Bienestar Comunitario	59.353,3	0,6	62.961,7	0,6	(5,7)
45 Kultura 45 Cultura	213.680,8	2,0	231.532,9	2,2	(7,7)
46 Erkidegoko bestelako zerbitzuak 46 Otros servicios comunitarios	7.621,3	0,1	8.050,5	0,1	(5,3)
47 Euskara sustatzea 47 Promoción del Euskera	109.846,3	1,1	115.515,0	1,1	(4,9)
5 Izaera ekonomikoko ondasun publikoen produkazioa 5 Producción de bienes públicos de carácter económico	1.024.688,3	9,8	899.391,2	8,5	13,9
51 Oinarrizko azpiegiturak 51 Infraestructuras Básicas	687.092,6	6,6	603.561,3	5,7	13,8
52 Komunikazioak 52 Comunicaciones	41.485,1	0,4	50.424,1	0,5	(17,7)
54 Ikerketa zientifikoa, teknikoa eta aplikatua 54 Investigación científica, técnica y aplicada	280.925,2	2,7	229.449,1	2,2	22,4
55 Oinarrizko informazioa eta estatistika-informazioa 55 Información básica y estadística	15.185,4	0,1	15.956,7	0,2	(4,8)
6. Erregulazio ekonomiko orokorra 6. Regulación económica de carácter general	41.521,9	0,4	43.368,6	0,4	(4,3)
61 Erregulazio ekonomikoa 61 Regulación económica	29.664,9	0,3	30.744,5	0,3	(3,5)
63 Finantza-erregulazioa 63 Regulación financiera	11.857,1	0,1	12.624,2	0,1	(6,1)
7 Ekoizpen-sektoreen erregulazio ekonomikoa 7 Regulación económica sectores productivos	323.457,8	3,1	391.546,0	3,7	(17,4)
71 Nekazaritza, Abeltzaintza 71 Agricultura, Ganadería	128.636,0	1,2	141.310,3	1,3	(9,0)
72 Industria 72 Industria	114.910,7	1,1	148.772,4	1,4	(22,8)
73 Energia 73 Energía	2.971,2	0,0	13.612,2	0,1	(78,2)
75 Turismoa 75 Turismo	20.427,5	0,2	25.700,5	0,2	(20,5)

FUNTZIO TALDEA/FUNTZIOA GRUPO FUNCIONAL/FUNCIÓN	2012	Guztizkoaren araberako % % s/total	2011	Guztizkoaren araberako % % s/total	2012/2011 hazkundearen % % Incremento 2011/2010
76 Merkataritza 76 Comercio	56.512,3	0,5	62.150,6	0,6	(9,1)
9 Finantza-harremanak bestelako herri-administrazioekin 9 Relaciones Financieras con otras Administraciones Pública	77.560,9	0,7	152.840,4	1,4	(49,3)
91 Finantza-harremanak euskal sektore publikoarekin 91 Relaciones Financieras con el Sector Público Vasco	77.560,9	0,7	152.840,4	1,4	(49,3)
GUZTIRA TOTAL	10.449.167,0	100	10.549.489,0	100	(1,0)

Ondoren gastu-politikak aipatu dira, bai eta aurrekontu-programa garrantzitsuenak ere.

Kanpo Harremanak

Euskadiko kanpo-politika garatzeko bi jarduera-ildo nagusi daude: Kanpo Ekintza eta Garapenerako Lankidetza. 2012ko Aurrekontu Orokoretan 9,5 milioi euro bideratzen dira Kanpo Ekintzara, eta 50,7 milioi euro, berriz, Garapenerako Lankidetzara.

Euskadiko Kanpo Ekintzak lau lan ildo nabarmenzen ditu, Europar Batasuna, alde anitzeko eta bi aldeko Kanpo Harremanak, mugaz haraindiko politika eta kanpoan bizi diren herritarrei emandako laguntza eta arreta.

Kanpo Ekintzaren helburuak Europar Batasunean Euskadiren zereginak eustea eta sustatzea dira, baita munduko hainbat tokitan enpresak nazioartekotzen laguntzea ere, bai Euskadik kanpoan dituen ordezkaritzen bitartez bai SPRIren bulegoen bitartez.

2012. urtea funsezko aldi bat da Akitania-Euskadi euroeskuadea garatzeko, bai Euskadiren eta Euskadiren ehun ekonomikoaren interesen alde egiteko itunak bilatzeko.

Garapenerako Lankidetzaren alorrean, Eusko Jaurlaritzak garapen-bidean dauden herrialdeekin orain arte egindako lanarekin jarraituko du 2012an ere, eta horretarako, 50,7 milioi euro bideratuko ditu ildo horretara, hots, garapen-bidean dauden herrialdeetara Administrazio Orokorraren guztizko aurrekontuaren % 0,5 bideratuko du

Jaurlaritzak Garapenerako Lankidetzaren alorrean gauzatutako ekintza eredu descentralizatu batean oinarritura dago, GKEekin lankidetzan eta foru- eta udalerakundeen koordinatuta. Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Funtsa (GLSF) nazioarteko solidaritateko eta lankidetza publikoko ekimenak gauzatzeko finantza-tresna nagusia da, eta ekimen horiek hiru jardun-ildo nagusiren bitartez gauzatzen dira: garapenerako lankidetzako programak, garapenerako lankidetzako proiektuak eta ekintza humanitarioko esku-hartzeak.

A continuación se comentan las políticas de gasto y los programas presupuestarios más significativos.

Relaciones Exteriores

La política exterior de Euskadi se desarrolla a través de dos grandes líneas de actuación, la Acción Exterior y la Cooperación al Desarrollo. En los Presupuestos Generales de 2012 se dedican 9,5 millones de euros a Acción Exterior y 50,7 millones de euros a Cooperación al Desarrollo.

La Acción Exterior del País Vasco se lleva a cabo por medio de cuatro líneas de trabajo, la Unión Europea, las Relaciones Exteriores de carácter multilateral y bilateral, la política transfronteriza, y el apoyo y la atención a la ciudadanía residente en el exterior.

Los objetivos de la Acción Exterior son mantener y potenciar el papel de Euskadi en la Unión Europea, así como dar apoyo a la internacionalización de las empresas en diversas partes del mundo, tanto desde las Delegaciones de Euskadi en el exterior, como desde las oficinas de la SPRI.

El año 2012 será un periodo fundamental para el desarrollo de la Euroregión Aquitania-Euskadi, así como para la búsqueda de alianzas que favorezcan los intereses del País Vasco y de su tejido económico.

En materia de Cooperación al Desarrollo, el Gobierno Vasco continuará en 2012 con su labor de solidaridad con los países en desarrollo, destinando a ello 50,7 millones de euros, lo que significa destinar a los países en desarrollo el 0,5% del presupuesto total de la Administración General

La acción de Gobierno en el área de la Cooperación para el Desarrollo se basa en un modelo descentralizado en colaboración con las ONGs y en la coordinación con las instituciones forales y municipales. El Fondo de Cooperación y Ayuda al Desarrollo, FOCAD, es el principal instrumento financiero para llevar a cabo las iniciativas de solidaridad internacional y de cooperación pública a través de tres grandes líneas de actuación: los programas de cooperación al desarrollo, los proyectos de cooperación al desarrollo y las intervenciones de acción humanitaria.

